

Noiz eman mugikorra seme-alabei?

26-31. orriak

#2.774 | 2022 / 04 / 10 | 4,00 €



Errusia menderatuko ote dute zigor ekonomikoekin?

12 | UKRAINAKO GERRA



"Trantsizio energetikoaren diskurtsoa arrotza da guretzat"

32 | JACKELINE ROMERO




50 urteko talaiatik euskarari begira

52 | SAGRARIO ALEMAN

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #273
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



MUNSTRO POPULISTAK

COVID-19AK ETA UKRAINAKO GERRAK ERAGINDAKO EZTABAIDETAN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | BEÑAT MUGURUZA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | ARKAITZ ZARRAGA
- 25 | MARTA ABIEGA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
SAGRARIO ALEMAN
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



MUGARIK GABE

32 | JACKELINE ROMERO
ekintzailea elkarrizketatu du Amaia Lekunberrik. Kolonbiako estatuko jatorrizko herrietako bat den Wayúu komunitateko kide da eta mintzo da ikatz meategiak beren lurreen eragindako kalteez, bereziki emakumeengan izan dituen ondorioez, heriotz mehatxuarekin daraman borrokaz eta “trantsizio” zein “energia berde” hitz erdi-ustelez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Errusiaren aurkako zigor ekonomikoak, suntsiketa masibozko arma berri hori
Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA

“Beste zenbait artek lortzen ez duena lortzen du opera garaikideak”
Miel A. Elustondo

26 | GIZARTEA

Seme-alabari estreinakoz mugikorra noiz eman
Jon Torner

36 | EUSKARA

Gasteizko euskara jendeak etorkizun hobea izan dezan
Miel A. Elustondo

38 | ENERGIA | GOIENER

“Argindarraren merkatutik geroz eta dependentzia gutxiago izan, hobe”
Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | ERAKUSKETA

Supermerkatuaren poetikaz
Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Diktadura mundiala

Korbata eta fokuen distira artean gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketaren zozketa egin dute ostiralean. Aurreko edizioen antzera –2010ean Hegoafrikan eta 2018 Errusian– hau ere abiatu zen ustelkeria eta eroskeria salaketa artean. Futbol modernoa negozioa da; Qatarreko diktaduraren menpeko langileen prekarietatea esklabotza modernoaren bezalaxe. Diru gosea kiroltasunaren eta giza eskubideen gainetik dago. Irudian: FIFAreko egoitza nagusiaren aurrean, hondarrez betetako 6.500 baloi paratu ditu Volker-Johannes Trieb artistak “Munduaren kontzientzia, lotsaren orbana zara” mezuarekin. Baloi bana Qatarreko kopako azpiegituren eraikuntzan hil den langile bakoitzeko.

Bakegileek zergen egoitza okupatu dute Miarritzen

ERREDAKZIOA

Bakegileen izenean herritar talde batek Frantziako zergen egoitza okupatu zuen Miarritzen, apirilaren 1 goizean. Ekintza euskal presoaren alde dela adierazi zuten, eta iragan hilean zio berarekin Baionako suprefeturaren aurrean egindakoaren ildokoa izan da.

Bakearen Artisauek eta Bake Bideaneko kideak euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko oihuekin sartu ziren egoitzara goizean eta eguna pasa zuten bertan. Bertaratzeko deia luzatua zieten herritarrei, gaua zergen egoitzan pasatzeko asmoz: 19:00etan afari partekatua egitea zuten pentsatua eta ondoren *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala ikustea. Baina polizia etorri eta 19:00etan hasi zen ekintzaileak kanporatzen.

FASE ALDAKETA

Urtarrilaren 8ko Baionako presoaren aldeko manifestazioan iragarri zuten Bakegileek mobilizazioak beste fase batera eramango zituztela, besteak beste desobediencia zibila erabiliz. Jadanik bi ekintza egin dituzte haren itzalean. Lehena iragan otsailaren 18an egin zuten Baionako suprefeturaren aurrean, eta hau da bigarrena.

Okupatzaileek galdegin diote Frantziako Gobernuari ea non diren euskal presoekiko bere konpromisoak, adieraziz bake prozesua aspaldi hasi zela Aieteko Konferentzian eta badela ordua urrats sendoak emateko.

Gogorarazi dute Yvan Colonna preso korsikarraren heriotza Frantziako Gobernuaren espetxe politikaren ondorio izan dela

Gogorarazi dute, halaber, Yvan Colonna preso korsikarraren heriotza Frantziako Gobernuaren espetxe politikaren ondorio izan dela, eta berretsi dute ekintza mota honekin jarraituko dutela espetxe politika aldatu arte. Azpimarratu dute, gainera, Unai eta Jon Parot anaiak eta Jakes Esnal presoak espetxean direla azken 32 urteetan, eta haien askatasuna eskatu dute.

Hurrengo egunean, Bakegileek autopista blokeatu zuten Miarritzen, Jakes Esnal, Ion eta Unai Parot eta euskal presoaren etxeratzea galdetzeko. ●



BAKEAREN ARTISAUAK

Donostiako Udalak ia milioi erdi bat euro banatu dizkie gaztelaniazko hedabideei

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Ia milioi erdi bat euro ordaindu zizkien gaztelania hutsez edo nagusiki hala diren hedabideei Donostiako Udalak publizitate instituzionalaren bidez, eta euskarazkoei, kontrara, 32.000 euro. *El Diario Vasco* eta *Ser Irrati* kateak dirupoltsaren ia erdia jaso dute, eta euskarazko hedabide guztiak batuta –*Berria*, *Euskadi Irratia*, *Gaztea*, *Irutxuloko Hitza*, *ARGIA*, *Aizu*, *Bertsolari*, *Gaztezulo*, *Hamaika Telebista* eta *Donostia Kultura Irratia*– %6,43.

Donostiako Udal Gobernuak hedabideetan ordaindu publizitate instituzionalaren iazko datuak eskuratu ditu ARGIAk. Guztira 496.408 euro erabili ditu publizitate instituzional kontzeptupean. Alde handiz gehiena *El Diario Vasco* eman diote, Teledonostirekin batera, 121.340 euro, %25 bueltan. Ideia bat egiteko, ARGIAk 2.087 euro jaso zituen, %0,5.

Publizitate instituzionalaren bidez Eneko Goiaren Gobernuak egiten dituen komunikazio gehienak ez dira euskal hedabideekin informatzen diren donostiarrengana heltzen, kanpainen gehiengoa gaztelaniazkoetan soilik egiten baitute. Bestela esanda, publizitate instituzionalarekin bultzada ekonomiko handiena *El Diario Vasco* eta *Ser* hedabideei ematen diete. Hirugarren postuan EITB dago, eta laugarren *Noticias de Gipuzkoa*. Datu hauetan ez daude beste dozenaka milaka euro, gehienak babesletza eta kontratu txikien bidez sailkatuak, adibidez, udalak ematen dituenak San Sebastian Gastronomika gisako ekitaldiak antolatzeagatik.

Banaketa irizpideak ez daude garbi. Audientziak badira, ez da ulertzen, adibidez, *Noticias de Gipuzkoa* jasotzea *Garak*, *Berriak* edo ARGIAk baino gehiago. CIESen datuen arabera dozenaka milaka irakurle gehiago dituzte hiru hedabide nazionalak, baina *Noticias* taldeko egunkariak gehiago jaso du.

Honen guztiaren aurrean, EH Bildu koalizioak proposatu du euskarazko hedabideetan gaztelaniazkoetan adina publizitate jartzea. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

Faxismo liluragarria



ARITZ GALARRAGA

Pasarte bezala ez du preziorik: Joseph Brodskyk esplikatzan du nola behin, 1977ko azaroan, Venezian zegoela, Susan Sontagek deitu zion, Ezra Pounden alargun Olga Rudgerekin afari bat zuela eta: “Ez dut bakarrik joan nahi, beldur naiz”. Txirrina jo zuten, eta, begi borobil eta distiratsuko emakume txikia atarian agertu eta gero, “ikusi nuen lehen gauza izan zen poetaren bustoa, egongelaren zoruan”. Tea atera, baina kikarak ezpaineratu baino lehen, anfitrioiak hasi zitzaion: bere senarra ez zela faxista bat, ez zekiela ezer gertatzen ari zenaz... Brodsky halako lozorro batean sartu zen bitartean, Sontag ez, Sontagek gauzak bere lekuan jarri zituen: “Inoiz entzundako ihardespunik handienetakoa izan zen hori”. Andre zaharrari harreragatik eskerrak eman ondoren, agur esan zioten.

Ez da Sontagek gauzak bere lekuan jartzen zituen lehen aldia. Badu testu bat, 1974koa, “Fascinating Fascism”, *Under the Sign of Saturn* liburuan bildu zuena gero, zeinean Leni Riefenstahlen ibilbidea zuritzeko ahalegina salatzen duen, birgaitze ariketa lotsemangarri bat, Estatu Batuetan bertan, nazien propaganda egilea izan zena dokumentalista soil eta zera politikoarekiko arduragabe gisa aurkeztuz, iraganaren berridazketa makurra eginez. Nor eta Hitlerrek “nire emakume aleman perfektua” deitu zuen hura. Sontagek, ordea, gauzak bere izenez deitu behar direla esateaz gain, faxismoak Bigarren Mundu Gerra bukatu eta 30 urtera jendeagan sor dezakeen liluraz ohartarazten zigun. Izan ere, faxismoak eraginkorra izaten jarraitzen du, haren irrisak oraindik bizirik daudelako.

Faxismo, eta faxista, hain alegeraki, nahieran erabiltzen diren garaiotan, oharpena litzateke behar denean erabili behar direla. Paradoxikoa izan daiteke bestela: edozeini faxista deitzea gerta daiteke benetako faxistei ez deitzeko aitzakia. Eta ematen duena baino inportanteagoa da: faxismoak, Sontagek ohartarazi bezala, oraindik ere jarraitzen baitu, eta ez gutxi, liluratzen jendea. ●



Gastu militarra

Eragozpen fiskalaren kanpaina abiatzeko ekintza egin dute Bilboko kuarter militarrean. Gastu militarra salatzeaz gain, eragozpen fiskala egiteko deia luzatu diete herritarrei. Eragozpen fiskalaren bidez, norbanakoak posible du bere zergen zati bat gastu militarra bideratu dezaten saihestea.

13/13 auzia

Hiru eta zazpi urte arteko espetxe zigorra ezarri diete 13/13 auzian epaitutako lau laguni. Zazpi auzipetuetatik lauri espetxe zigorra ezarri die Espainiako Auzitegi Nazionalak eta beste hiru absolbitu egin ditu. Helegitea jartzeko aukera du orain Defentsak.

Abortua

Eskuin muturreko Hazte Oir gisako eragile espainiarren babesarekin, mugimendu antiabortistak prozesioa egin du abortua praktikatzan duen Donostiako klinika baten aurreraino. Bai klinika bai abortatu nahi dutenak defendatzera joandakoekin tentsio uneak izan dira.

EKONOMIA

Martxoak 30: etxeko langileei zor zaiena



AINHOA ETXAIDE
AMORORTU

Martxoaren 30a oraindik ez da agendan gorde eta adierazpen politikoekin betetzen den egun horietako bat. Etxeko Langileen Nazioarteko Egunean beraiek izan ziren hitz egin zutenak, etxeko langileak, baita argi hitz egin ere. Eragileen artean eta instituzioetan isiltasuna nagusi izan zen, adierazgarria bezain kritikagarria. Baina, gaitz erdi, langile horiek esateko eta eskatzeko dutena arretaz entzuteko balio izan bazuen egunak.

Etxe barruko langile edo *interna* figura desagertzea; soldatapeko gainontzeko langileekin parekatzea, eskubideak lapurtzeko ezartzen zaien erregimen berezia alboratuz; segurtasunez lan egiteko eskubidea aitortzea; atzerriartasun legea indargabetzea –eskubide zibilik gabe ez baitago esplotazioari aurre egiterik–; nagusikeriaren eta indarkeriaren aurrean babestea; egiten duten lana aitortu eta balioa ematea... Azken batean, ordutegiak, soldatak, jai egunak, atsedenak eta dagozkien funtzioak zehaztuko dizkien lan hitzarmena nahi dute. Eskubideak nahi dituzte.

Adineko egoitzetako langileak, garbiketakoak, esku hartze sozialekoak, hezkuntza berezikoak, etxez etxeko zerbitzuetakoak zein jangeletakoak... gatazkak piztu eta borrokan ari dira han eta hemen. Zaintzari lotutako sektoreetako langileak dira, emakumeak gehien gehienak, sektorerik borrokariena momentu honetan.

Etxeko langileak Euskal Herriko langileriaren borroka fase berri honen parte izatearen garrantzia eta balioa aurrerago ikusiko badugu ere, orain da urrats hori aitortzeko momentua. Ez da beraien arazoa, eta ez dira euren bizi baldintzak soilik. Zaintza guztion ardura da, eta guztion erantzukizuna da zaintzaileei, gaurkoei zein aurretik zeudenei, zor zaiena ordaintzea. ●

ANALISIA



ERROMAKO KLUBA

Desazkunde itsusi hori!

XABIER LETONA BITERI

Epe laburrera humanitateak bi arazo existentzial erraldoi bederen baditu, gerra atomikoa –erdi ahaztua genuen, baina...– eta aldaketa klimatikoa. Lehena azkarra litzateke eta bestea geldoagoa gure bizitzetara begira, baina oso azkarra gizateriaren historia aintzat hartuta.

Ezin uka biek kezkatzen dutela herritarra, gutxienez Mendebaldean, garapean diren herritarren sentipena beste upeleko kontua delako: larri denarentzat etorkizuna gaur da. Gas, elektrizitate edo erregaiei igoerak hartzen du agenda, instituzioetan eta tabernetan. Herri xeheak gorriak bizi ditu ostera ere, eta agintariak behar dena esango dute hura kontentu izan... edo engainatzeko, bata eta bestearen artean sarri ez baitago desberdintasun handirik.

Energia, energia eta energia, ez dugu besterik azken urteetan eta, zer esanik ez, azken egunetan. Lehengaien agortze doinuak aspaldikoak dira. Atzo, globalizazioaren eta garraioaren mugak agerian geratu ziren COVID-19arekin; gaur, Ukrainako gerrak prezioak eztandarazi ditu. Dena da hidrogeno berde, energia berriztagarri, haize, eguzki... eta teknologia. Saudi Arabiak esaten du 2040rako aurkituko duela CO2a xurgatzeko teknologia egokia, bitartean ikertu eta probatu egin behar dela. Eta bati gogora ekarri dio *Don't look up* (Ez begiratu gora) filma, non aberatsik aberatsenak teknologiaren miraria eskaintzen dion AEBetako lehendakariari, Lurrera zuzen datorren meteoritoa geldiarazteko, baina azkenean dena alferrik.

Aurten bete da mende erdia Erromako Klubak *Hazkundearen mugak* lan erraldoia kaleratu zuenetik. Zentzunak argi zioena zientziaz jantzi zuten txukun eta eder 1972ko hartan: “Industrializazioa, elikagaien produkzioa eta baliabideen agortzea egungo joeran mantentzen badira, ehun urtetan gure mugara iritsiko gara”. Azti begiekin, gainbehera 2020tik aurrera hasiko zela iragarri zuten. Epelak entzun behar izan zituzten.

Kolapsorako bidea, jakina, ez da zerutik erori, sistema kapitalistaren fruitu ankerra da, bizitza beharrean aberastasuna eta zapalkuntza erdian jartzearen ondorio. Engainurik eta iruzurrik handiena zen –eta da– ez dela beste alternatibarik egon, Margaret Thatcherrek zioen moduan. Baina kapitalistek, gogorrek eta biguinek, ez dute halakorik onartzen. Ezta gure agintariak ere, izan Urkullu edo Chivite, Tapia edo Irujo. Hazkunde ekonomiko beti-jasangarriaren jauregietan ez aipa desazkunde itsusi hori. Ezta legebiltzarretan edo bestelako erakunde eta alderdietan ere. Ixo! Horrek ez du botorik ematen.

Baina eskasiak energia nola, denborak desazkunde ere agendan jarri du. Begiratu bestela datozen urteetan nola doazen behera Nazioarteko Diru Funtsaren edo Mundu Bankuaren herrialde garatuenean hazkunde aurrikuspenak. Hori badator, kontua da ea egungo aberastasunaren metaketa-hondamendi hau bezainbeste planifikatuko den, herritarren gehiengoari aukera gogor baina duin bat emanez, edo faxismoaren desazkunde gailenduko den. ●

30

puntu egin du behera enplegua aurkitzeko gazteek duten aurreikuspenak, 2019ko galdeketaarekin alderatuta. Urtero moduan, EAEko gazteak galdekatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak, eta etorkizunarekiko konfiantza-indizea serieko okerreana izan da.



5.800

zuhaitz bertako landatu dituzte aurten Baso Biziak plataformako kideek. Guztira, 18 zuhaitz espezie, 17 hektareatan banatuta. Egungo basogintza ereduarekin eta kudeaketarekin kezkatuta dagoen jendeak osatzen du plataforma.

%20

izatea AEBetako aberatsenek ordaindu beharreko gutxieneko zerga, hori da Etxe Zuriak aurkeztutako proposamena. 700 bat familia aberatsi baino ez lioke eragingo, eta administrazioak 360.000 milioi dolar gehiago bilduko lituzke hamar urtetan.



KORRIKA 22 txiotan



"Korrika oso garrantzitsua da, emozionatzen gaitu, batzen gaitu, ahots diferenteak kalera ateratzen ditu, eta batez ere denon aurpegietan irri bat jartzen digun ekimena da. Gora Korrikaren atzean zaudeten guztiak!"

@BikitxuB



"Erriberan euskaraz inork hitz egiten ez duela edo euskararen alde egiten ez duela diotenentzat, irudiok [jendetza Korrikan]. Erriberan ere, euskararen alde. Euskara ofiziala lortu arte!"

@EduarneLeSa



"Hotza, euria, logura, zirrara, urduritasuna; beti merezi du. Itzela da irudikatzea edonon, edonoiz, euskararen alde Korrika egiteko prest dagoen zoro talde eder bat dagoela"

@jabiasurmendi



"Ozen entzuten da Korrika Iruñeko udaletxe aurretik igarotzen: 'Maya, entzun, Iruñea euskaldun!'"

@mikelgi

TEKNOLOGIA

Kulturaren euskarriak



DIANA FRANCO

Ekonomia bizitza da" esaldiarekin ulertu nuen ekonomiaren eta boterearen arteko harremanak oso anitzak izan daitezkeela. Ekonomia trukea da, Lurra planeta eta bertan bizi garen izaki guztioi zaindu beharreko truke oreka.

Teknologia, historikoki, ekonomian eta botere harremanetan eragiteko mekanismo efektiboak dira. Orekak berregituratu ditzakete. Literatura, arte biziak, musika, ikus-entzunezkoak, bideo-jokoak... Sorkuntza eremu anitz daude, eta euren lana jasagarri egiteko bide ezberdin ugari jorratu izan dituzte sortzaileek. Hala, euren lanaren inguruan jardura ekonomikoak sortu dira.

Digitalizazioak 50 bat urte ditu eta hasieran negozio eredutan eragiteko potentziala ez genion guztiz antzeman. Hasieran, eraldaketa digitalak edukien kalitatean zekartzan onurak soilik ulertzen genituen. Gailu sortzaileek ordea beste onura bat aurkitu zuten, eduki kopuru handia jasotzeko digitalizazioak zekarren aukera. Ideia horrekin, "euskarri bat, sorkuntza lan bat, pertsona bat" eredua kolokan jartzen hasi zen. Aldaketa ez zen hor geratu. Lehenengo ordenagailu sarea, Arpanet, 69. urtean jarri zen martxan eta eduki digitalak partekatzeak aukera ekarri zuen. Gaur egun ezagutzen dugun sarea 90ean ezagutu genuen, eta mundu guztia konektatzeko aukera ekarri zuen. 2000. urte inguruan hodeiaren ideia hasi zen garatzen, nork bere ordenagailua gordailu gisa eduki beharrean zerbitzu hori ematen duen ordenagailu zentralizatueta konektatzeko aukera sortuz. Sarearen forma eta berau kontrolatzeko moduak aldatu ziren. Horrekin, plataformak hasi ziren garatzen, eduki ugari pertsona ugariri leku bakar batean eskaintzeko aukerarekin. Eta "euskarri bat, sorkuntza lan guztiak, mundua" eredua zabaldu da.

Kontua da, kontsumorako erosoa izan arren, eredu horrek sortu dituen botere harremanek leku gutxi uzten diotela sortzaileen bizitza sostengatzea bilatzen duen ekonomia ereduari. Hor gaude denok harapatuta, eta sortzaileek hor egotea beste aukerarik ez dute. Bizitza txikia duen eredua da oraindik, soilik hogeit bat urte. Aldaketa asko ikustekoak gara. ●

NAZIOARTEA



EL SALVADORREKO LEBRUKANTZAKO PRENTSA OLAGAKANTZA

Bukeleren mendeku politika

87 pertsona hil dituzte El Salvadorren martxoaren 25etik 27ra. Horietatik 62 egun bakar batean. Mende honetan herrialdean erregistratuta dagoen egunik bortitzena izan da. Poliziaren txostenaren arabera, biktimetatik 13 baino ez ziren Marako (gaizkile taldea) kide.

Nayib Bukele presidentearen erantzuna azkar etorri da eta salbuespen egoera ezarri du. Hala, zenbait eskubide konstituzional indargabetuta daude –elkartzeko eta biltzeko eskubidea, kasu– eta atxiloketa-aldia luzarazi dute –hiru egunetik 15era–. Bukelek igandean esan zuen jendeak ez duela zertan murrizketa horren beldur izan, "salbu eta zu gaizkilea bazara edo agintariei susmagarritzat jotzen bazaituzte".

Horrek areagotu egin du erakunde sozial eta politiko askok aspalditik salatu duten beldurra: Gobernuaren deriba autoritarioa eta Bukele gaizkile taldeen delituak baliatzen ari dela disidenteak inguratzeak. "Etsaien" zerranda horretan daude, besteak beste, giza eskubideen babeserako elkarteak, ingurumenaren aldeko kolektiboak, kazetariak eta oposizioaren politikariak.

Lehen errepresio neurri gisa, gobernuak erabaki du *pandilleroak* preso dituzten kartzetetako baldintzak asko gogortzea. Eskubiderik gabeko


subjektu gisa aurkeztu dituzte presoak eta azokan ganadu gisa publikoki erakutsi; bahitu edo trukerako txanponen erara politikoki erabiltzeko. "Dena konfiskatu diegu, baita lotarako koltxonetak ere. Janaria murriztu diegu eta orain ez dute eguzkia ikusiko. Hiltzeari utzi edo haiek ere ordainduko dute", idatzi zuen Bukelek. Zigorra oinarri duen espetxe-logikaren erakustaldi aparta, presoak gizarteratzeko funtzioa lurperatu eta mendekuari leku osoa eman dio Bukelek. Oso politika eraginkorra komunikabide sentsazionalistentzat, baina presoek janari gutxiago emateak edo ziegetan pilatzeak nekez hobetuko dute ezein herrialderen egoera. "Gerra giro" horretan sakonduz, Bukelek *pandilleroen* laguntzat jo ditu nortzuk eta "giza eskubideen GKEak, nazioarteko komunitatea eta kazetariak".

Espektakulu mediatikotik aparte, Bukelek munduari helarazi nahi dion irudi gogor eta zigortzailearen ifrentzuan, bere gobernu hiru mara bortitzenekin negoziatzera eseri da. Iaz, fiskal nagusi ohiak baztertu eta *El Faro* hedabideak argitaratu zuen ikerketa batek agerian utzi zuenez.

Horregatik, El Salvadorreko oposizio politikoak dio azken hilketa olde horrek lotura duela marek gobernuarekin isilpean lortutako akordioen hausturarekin, eta horren ondorio dela *pandilleroen* erreakzio bortitza. ●

Planetaren berotzea mugatzeko, zenbat murriztu behar dugu CO₂ isurketa?

ITURRIA: MONITORING GLOBAL CARBON EMISSIONS IN 2021 / REPORTERRE



1936ko gerra

EAEn ezagutzen den 1936ko gerrako hobi komunik handiena aurkitu dute, eta Euskal Herriko handienetakoa, Bilboko Begoñako hilerrian. 46 gorpuzki daude bertan, gehienak Errepublikaren alde borroka egindako gudari eta milizianoenak. Gogora Institutuak DNA probak egingo dizkie orain.

Plastikoa

Espainiako kongresuak hondakinen araudi berria onartu du. Latak, botilak eta brickak bereizita jaso eta ondoren industriari itzultzeko sistema jarriko da martxan; 0,40 euroko zerga jarriko du erabilera bakarreko plastiko kilo bakoitzeko eta 40 euro ordaindu beharko da zabortegi edo erraustegira isurtzen den hondakin tona bakoitzeko.



ERRUSIAREN AURKAKO ZIGOR EKONOMIKOAK, SUNTSIKETA MASIBOZKO BESTE ARMA BERRI HORI

“Ukrainako gerrak lurrikara oso gogor baten gisan bere uhinekin astindu du munduko ekonomia, bereziki herrialde txiroena”, laburbildu du Nazioarteko Diru Funtsaren buru Kristalina Georgievak: “Errusia eta Ukrainari eragin die baina baita planetako gainerako 7.000 milioi jendeei”. Alabaina, kanpaina militarrek eragindako kalte ekonomikoek baino are ondorio sakonagoak eragin ditzakete Mendebaldeak Errusiari ezarritako zigor ekonomikoek. Ekonomia arma ere bai baita.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Ukrainako gerrak 2022ko otsailaren 24tik pasa diren aste laburretan dardarka jarri du ekonomiaren jarduera Europa eta mundu osoan. Jadanik alor guztietan urratu dizkio arrakalak COVID-19 pandemiak eragindako atzeralditik –azken ehun urteotako handienetik– berpiztu nahian zebilenari. Baina... armek kaltetua izateaz gain, ekonomia bera baldin bada gerra hone-tako armarik inportanteena?

Energian berezitua den Kurt Cobb iparramerikarrak *Resource Insights*-en idatzi du: “Hemen da III. Mundu Gerra, baina ez da guk espero genuen modukoa. Ez gaitezen deskuidatu: gerra honen gudu-zelaiak mundu osoa hartzen du eta nagusiki ekonomikoa da. Errusiak eraso diorean Ukrainari, beste po-

tentzia handiek ez dituzte beren soldaduak eta tankeak bidali; aitzik, antolatute inoiz ikusi ez den bezalako gerra ekonomiko orokorra”. Zenbateraino kalteak eragin ditzake eta nork sufrituko ditu handiagoak?


Mendebaldea deitzen denak –AEB, Europar Batasuna, Australia, Japonia...– Errusiaren kontra ezarritako zigor ekonomikoak ez dira hasi 2022ko otsailean. Zortzi urte lehenago, 2014an Errusiak Ukraina inbaditu eta Krimea bereganatu zuenean ezarri zioten zigor sail handi bat Errusiako hainbat agintari, enpresa eta pertsonalitateri; errusiarrek erantzun zuten arerioetatik etorritako inportazio asko debekatuz. Wikipediak dioenez, lehen zigorrek nagusiki Errusia kaltetu zuten, agudo hondoratuz errublo errusiarra, baina

Europar Batasunako herrialdeek ere sufritu zituzten galerak.

Aurtengo inbasioaren ondoren heldu zaie zaparradan errusiarrei zigor ekonomiko sail osoa. Ondasunak desjabetu dizkiote hainbat oligarka eta bestelako herritar errusiarri. Mendebaldeko herrialdeek eta haiekin bat egin dutenek beren buruei debekatu diete Errusiari saltzea gasa eta petrolioak ekoizteko teknologia oro, armadak erabili leza-keen edozein tresna elektroniko, teknologia eta abar bezala. Debekatu dute ere krediturik ematea energia konpainia horiei eta Errusiako Estatuarenak diren bankuei. Errusiako Banku Zentralari bahitu dizkiote munduan zehar hainbat dibisatan dauzkan 400.000 milioi dolarreko erreserbak. Errusia kanporatu dute munduko banku guztien arteko

**ZIGORREN
ONDORIOAK**

Gizona eskean,
Moskuko San
Basil katedralaren
inguruetan.



SERGEI ILNITSKY

harremanak bideratzen dituen SIFT sistematik. Zerrenda amaiezina da.

“Errusiari gainera jaurti diote finantzetako bonba atomiko bat”, azaldu du Sergei Aleksashenko Errusiako finantza ministrorde ohiak. Lubakiaren beste aldetik, Frantziako Finantza ministro Bruno Le Mairek esan du Errusiako ekonomia “hondoratzeko punturaino bul-tzako” duela Europar Batasunak. BBC-ren erredakzio-buru Faisal Islamek dio neurriok ohiko zigorrak baino gehiago direla “gerra ekonomiko mota bat”, helburutzat duena Errusia atzeraldi sakon batean amiltzea, bankuak diru barik utzi eta hiper-inflakzioa eraginez.

Berrikitan Nicholas Mulder historia ekonomikoan adituak argitaratua du *The Economic Weapon: the rise of sanctions as a tool of modern war* (“Ekono-

**“Zigor ekonomikoak
ikaragarriak dira,
ez da nazio modernorik
holako presio bati aurre
egin diezaiokeenik”**

Woodrow Wilson

miaren arma: zigorraren ugaritzea gerra modernoaren tresnatzat”). Mulderrek kontatzen du Lehen Mundu Gerraren ondoren hasi zirela potentzia inperialis-

tak zigor ekonomikoak erabiltzen. AE-Betako orduko lehendakari Woodrow Wilsonen zigorrez omen zioen direla “gerra baino are beldurgarriagoak. (...) Erremedio ikaragarria dira, ez dute hildako bakar bat eragiten boikota nozitzen duen herrialdetik at eta ez da nazio modernorik holako presio bati aurre egin diezaiokeenik”.

Mugimendu altermundialistaren erreferentzietakoa den ATTAC erakundearen aldizkarian Michael Roberts ekonomialariak ere idatzi du Errusiaren kontrako gerra ekonomikoaz: “Oroitarazten dizkidate Erdi Aroko setioak, hiriak nola menderatzen zituzten gosearen poderioz, ekintza militarrik gabe”. Baina mundu globalizatuan zigor ekonomikoek osatzen dute arma txit moderno bat, arma kimikoen edo bonba

nuklearren gisakoa. Lortuko dute errusiarrei amore eman araztea?”.

Robertsen ustean, Errusiaren ekonomia hondoratzen ari da jada. Finantzen Nazioarteko Institutuaren kalkuluak aipatuz, aurten %15 egingo du behera “eta horrelakorik ez da Errusian ikusi 1990eko hamarkadatik, hango ekonomiak duela hogeit hamar urteko edo lehenagoko mailara egingo luke atzera”. Nazioarteko Diru Funtsak atzeraldia %10ean kalkulatu die errusiarrei. Globalizazio neoliberalaren aldeko sutsua den *Eurasia Forum*-ek aldarrikatu du: “AEBek eta honen aliatuek sekulako kalte ekonomikoa eragin diote Errusiari tiro bakar bat jo gabe”. Mendebalduarrok, ordea, ez genduke kanpaurik jo behar goizegi: “Errusiak –dio Kurt Cobbek– bazter batean hesitua ikusten badu bere burua, pentsa lezake ez daukala beste alternatibarik arerioen kontrako gerra militarra gehiago indartzea baizik, eraso nuklearren beldurra zabaldua arerioak negoziatzera behartu eta akordio bat lortuta eta gerra ekonomikoa amaitzeko”.

Gerra honetan nabarmen Errusiari arrazoi ematen dion *Moon of Alabama*-k justu alderantzizko kalkulua egin du:

“AEBek eta Europak Errusiari zigor gehiago jartzeak Europa bera suntsituko du”

Moon of Alabama

More Sanctions On Russia Will Destroy Europe (“Errusiari zigor gehiago jartzeak Europa bera suntsituko du”). Honen ustez, Moskuren kontraeraso ekonomikoa abian jarri da munduari saltzen dizkion petrolio, gas, gari, potasa, titanio, aluminio, paladio, neon eta abarrak errublotan kobratzeko erabakiarekin. “Hemendik aurrera, AEBk eta Europar Batasunak kontsumitzen duten energia guztia askoz garestiago pagatu beharko dute eta haien ekonomiak atzeraldian


sartuko dira. (...) Joe Bidenek Europari eskatzen dio suizidatu dadin, AEBko industria babesteko. (...) Neurri horiekin eta AEBk eta EBk Errusiari ezarritako zigorrek European bertan eragindako hondamendiekin, beren ekonomien egoerak ekarriko ditu erregimen aldaketak Europako zenbait herrialdetan”.

Ukrainako gerra bera batetik, eta bestetik, zigor eta kontra-zigorren dinamika... zer gertatu behar zaio Europari? McKinsey aholkularitzako multinazionalak bi hipotesi landu ditu. Onenean, gerra arin amaituz gero eta zigorrak ez badira zabaltzen Errusiaren energia esportazioetara, European Barne Produktu Gordina aurten %0,0 geratuko litzateke, 2023an %2,1 igo eta 2024an %4,8 handitzeko. Baina gerra luzatuko balitz, European errefuxiatu krisia areagotuz eta Errusiari are zigor gehiago ezarrita, orduan atzeraldian geundeko, bai 2022 eta bai 2023an ere.

Gerrak berak jada eguneroko ogia eskuratzeko arazo handiak eragin dizkie herritarrei munduko bazter askotan, Ukraina eta Errusia izaki oinarritzko zenbait elikagairen ekoizle handienetakoak. Alor horretan ondorioak are okerragotuko dira datozen hilabeteetan, Errusia

Munduko herrialderik zigortuenak


Herrialde bakoitzak gaur dauzkan zigorren kopuruak



2022ko martxoaren 9ko datarekin.
Iturria: Castellum.AI, Statista-k aipatua.

Nazioartean ezarritako zigorren bilakaera

1950etik gaur egunera



Iturria: Global Sanctions Database, Democracy Digest-ek aipatua



ERRUSIA, MENDEBALDEAK ZIGORTURIK

Otsailaren 21az geroztik, Moskuren kontrako zigorrak areagotu dituzte Mendebaldeko estatuek eta egiturek. Argazkian, Europar Kontseiluak otsailaren 24an egin zuen ezohiko batzarra, Errusiaren kontra hartu beharreko neurriak adosteko.

EUROPAR KONTSEILUA


delako ongarri kimikoetan potentzia nagusietakoa: berak ekoizten duen munduak kontsumitzen duen amonioaren %23, urearen %14, potasioaren %21... Euskal Herriko laborariek ere igarri behar diote.

Eguneroko otorduak garestituko zaizkie herritarrei epe laburrean, baina Mendebaldeak Errusiari antolatu dion gerra ekonomikoak askoz aldaketa sakonagoa ere badakar geopolitika mailan. *Financial Times*-en Martin Wolf

“AEBek eta honen aliatuek sekulako kalte ekonomikoa eragin diote Errusiari tiro bakar bat jo gabe”

Eurasia Forum

ekonomialari liberalak esan du: “Gerra, hornidura arazo larriak eta inflazio altua elkarrekin batera gertatzeak desestabilizazioa dakar, munduak 1970eko hamarkadan ikasi zuenez. (...) Epe luzean ziurrenik bi bloke antolatuko dira elkarren arteko arrakala handi batekin, globalizazioan atzekoz aurre egingo dugu azkar eta enpresen interesak sakrifikatuko zaizkio geopolitikari”. Hona Europa, AEBen eta Errusiaren lehia geopolitikan katramilatuta. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Enrike Bert

OPERA PASIO



BESTE ZENBAIT ARTEK LORTZEN EZ DUENA LORTZEN DU OPERA GARAIKIDEAK



Irratian operaz jarduten duenean aditu, eta operara joateko gogoa eragiten du. Kartsu mintzo baita mikrofonoaren aurrean. Operaz. Horixe du pasio, barru-barruraino sartua du pozoia, eta ez dago beneno hori aterako dion sendagile ez belagilerik.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Garai batean Euskadi Irratiaren Arratsean saioan zintugun, operaz hitz egiten. Orain, Radio Vitorian ari zara, operaz beti.

Jendeari ez zaio harrigarri gertatzen inor liburu zale izatea, edo rock zale. Aldiz, opera zale izatea... besterik da. Eta jende horrek jakiten duenean datorren urteko martxora bitarteko agenda operara konpromisoz beteta dudala, are eta harrigarriago zaio. Eta hainbat bidaia egingo ditudala jakiten duenean, hainbat grabazio ditudala etxean, ez zaio buruan sartzen. Nire aisialdi osoa pasio baten inguruan eratua dut eta, gainera, irratoraino eraman dut nire zaletasun handi hori. Eta, irratian, erabateko askatasuna dut operaz jarduteko. Baina badiotsut, jendeari zenbait zaletasun ohizkoak iru-

ditzen zaizkio, eta beste batzuk, aldiz, frikiak. Nirea, kasurako.

Noizdanik frikitasun hori, nondikakoa duzu?

Etartetik ez dut jaso, behintzat. Hor bada gauza bat, ez dakit gauzarik egiten, pasiorik gabe. Oso naiz sutsua. Erdibidekorik ez dut ezagutzen. Gogoratzen dut, garai bateko BBBko 3. mailan, Eibarko La Salle institutuan musika ematen zигun irakasleak Beethovenen *Bosgarren Sinfonia*-ren lehen mugimendua entzunarazi zigula, eta 40 ikasleko gela handian, denak kexa jo zuten: "Hau da aspermena!", ari ziren guztiak. "Bert, jasanezina, ezta?", eta nik ameto eman nion, baietz, aspergarria zela. Lotsa ikaragarria ematen zidan egia aitortzeak, alegia, musi-

ka hura gustatu egin zitzaidala esatea, liluragarria zitzaidala. Eta Elgoibarren genuen musika-denda bakarrera joan nintzen, Pitxintxu mitikora, delako sinfonia hura kasetean erosi, eta etxera.

Beethovenen Bosgarren Sinfonia aditzera.

Amak burutik nengoela pentsatu zuen. Aita, berriz, ordurako ez zen mundu honetan. Gurea langile-familia zen, aski bizimodu apala genuen... modu konbul-tsiboan aditu nuen kasete hura, ehunka aldiz. "Bosgarrena hain ederra bada, besterik ere aditu beharko dut, bada!". Bi-dean, garai hartako Radio 2 aurkitu nuen, mundu oso bat azaldu zitzaidan, eta han eta hemen musika arakatzen hasi nintzen. Bestalde, kantatzea gustatzen zitzai-



Enrike Bert Arretxea

ELGOIBAR,
1963KO GABON ZAHARRA



Historia irakasle da Gasteizen. Opera maitale, aditu eta aritu. Irratiko saio eta kolaborazioez gainera, bi aldizkaritan idazten du: Madrilgo *Platea magazine*-n eta *Ritmo*-n, espainiar estatuko musika-aldizkaririk zaharrena. Kritikak eta erreseinak egiten ditu bietan ere, han-hemen ikusiak dituen operak kontatuz. Operaren frikia.

dan, eta, orduan, horixe pentsatu nuen: “Beethoven gustatzen zait, kantatzea ere gustatzen zait... opera bat ikusiko dut!”. Eta 1984-85ean hor nonbait, Bilbora joan nintzen, opera bat ikustera.

Zein opera zenuen?

Manon Lescaut, Puccinirena. Coliseo Albain izan zen. Ez nuen bihirik ulertu, ez nintzen ezertaz ohartu, baina, amaieran, bi gauza esan nizkion nire buruari. Lehena: “Beste bat ikusiko dut, baina aurretik obra irakurriko dut!”. Bigarrena: “Ez zakiat zein izan den mekanismoa, baina mundu honek harrapatu egin naik!”. Harrezkero, 700 opera emanaldi baino gehiago ikusi ditut, eta urtean 40 opera inguru ikusten ditut, eta ez dut ikusteari uzteko intentziorik. Gurean Realzale amorratuak gara, baina operaren eta Anoetako futbolaren artean, ordutegi beretsua baitute, futbolera joateari utzi nion, opera lehenetsirik. Opera eta musika klasiko gabe ezin dut egun bakarra ere pentsatu. Pasioa dut. Jakin-min handikoa ere banaizenez, musika diferente asko aditu dut, asko irakurri ere bai, eta, pixkanaka-pixkanaka, inbutuarena eginez, gaur egun, etxean, XX. eta XXI. mendeetako musika aditzen dut, batez ere.

Zer motatako musikaz ari zara?

Opera abangoardista. Frikietan frikiena naiz, beraz. Antzokira joan eta denetarik ikusten dut. Orojalea naiz horretan, eta oker esateko beldurrik gabe esan dezaket Euskal Herrian eskaintzen diren opera emanaldi guztiak ikusten ditudala. Baditut zenbait emanaldi gogoan josiak. Obra bukatu, ni aulkian jarrita, txiki-txiki ni, musikaren indarraren, handitasunaren, boterearen aurrean. “Ez nauk ezer!”. Eta, horrekin batera, beste sentimendu bat ere bai: “Nola egon naiz ni, nola egon daiteke inor musika honetatik dastatu gabe, gozatu gabe?”. Hustu egiten naiz, erabat. Adibide bat dut, beti-betikoa: 1999. urtean Madrilgo Teatro Realaren lehen denboraldian izan nintzen. Benjamin Brittenen *Peter Grimes* zen opera. Emanaldia ikusi, eta bestelako mundu bat deskubritu nuen, mundu berria.

Aldous Huxley baino areago zu, ‘mundu berria’.

XX. mendeko opera, garaikidea, nahi baduzu, gaur eguneko gaiak jorratzen

dituen opera. *Peter Grimes*-en, adibidez, bakardadea, presio soziala, “ezberdinak” baztertzeko eta zapaltzeko joera... Interpretazioak, berriz, sekulako ostikada eman zidan errailetan. Harrezkero, bestela bizi dut nire zale-tasuna. Ohartu nintzen nire musikaperspektiba ireki behar nuela. Giltza izan zen emanaldi hura. Bi orduz isil eta mutu egon nintzen, erabat ukituta: “Zer da hau, ordea? [Opera] Mundu honek ez du mugarik!”. 60 urte betetzera noala, badakit nire azken orduan pentsamendu horixe ibiliko dudala buruan: “Zenbat opera hor, ezagutzeko zain oraindik!”.

Opera abangoardista aipatu diguzu goraxeago. Usteko nuen opera zaharra zela, ezinbestez. Monteverdi, Puccini...

Eta Mozart eta gainerakoak! Aurreiritziak izugarriak dira. Film bat ikustera joan, gustatu ez, eta horixe esan ohi dugu: “Ez zait gustatu”. Baina inork ez du esango: “Ez zait zinema gustatzen. Ez naiz inoiz itzuliko”. Aldiz, operaz ari garela, bestela jokatu ohi dugu: “Enrike, zu operazalea zaitugu, ezta?”, eta nik, jakina, baietz, amorratua naizela. “Bada, behin opera bat ikustera joan nintzen, eta ez zitzaidan batere gustatu. Ez naiz inoiz itzuliko”. Arraioa! Horrek ez du logikarik! Uste dugu opera guztiak berdinak direla, monokordeak, kolore bakarrekoak. Eta ez! Operak lau mende baino gehiago bete ditu, estetika, garaiak, balioak... ezberdinak dira.

Berdinak, ezberdinak...

XVII. mendean, Monteverdiren sa-soian, opera gortearen zerbitzura zegoen. XIX.ean, mezenasek agintzen zuten operaren gaia. XX.ean, Lehen Mundu Gerra igaro arte, munduaren konbultsioak musikan ageri dira, esperimentuak hasten dira. Bigarren Mundu Gerraz gero, Gerra Hotzaren eta garai atomikoaren denboran, operak eztanda egiten du eta estetika guztiz ezberdinak sortzen dira. Philip Glassen munduak ikustekorik ez du Olivier Messiaenenarekin, eta Messiaenek ikustekorik ez du Morton Feldmanekin, eta Feldmanek ere ez György Ligetirekin. Operagileen izenak bata bestearen ondoren eman, eta jendeak galdetuko dizu: “A, baina gaur egun operarik idazten da?”. Aurreiritziz gainezka gaude, opera



aberantsentzat dela, atzerakoientzat, jakintsuentzat. Ni ez naiz bata, ez bestea, ez hirugarrena, baina operazalea nauzu, hala ere. Beste arazo bat ere bada: hezkuntza.

Musika hezkuntza esan nahi duzu, ala irakaskuntzaz ari zara, oro har? Izan ere, zu zeu irakasle zaitugu.

Historia irakasle. Musika ez da ikasten, ez irakasten. Irakastekotan, hirugarren mailako ikasgaia da. Xirula jotzen irakasten da, baina musikaren historiari ez. Eta musikaren historia ez da musikagileen izenak ezagutzea, musikaren eta garaian garaiko historiaren arteko

lotura ezagutzea baizik. Artearen historia irakasten da batxilergoan, baina musikaren aipurik ez da! Zentzugabekeria galanta! Arterik inportanteenetakoa, bazter utzia! Nire ustez, musikaren irakaskuntza hezkuntza sisteman txertatu behar da, eta historiarekin lotu. Ez dago gaur egungo musika ulertzerik, gaur egungo historia ezagutu gabe. Ez dago Sostakovitxen musika ulertzerik, Sobietar Iraultza ulertu gabe. Eta alderantziz, jakina. Hortxe dago koska. Musika kontserbatorioan egin behar da hori? Michelangeloren *David* ikasle orori esplikatzen zaie, eta Mozart, Beethoven, Wagner ez. Ezta gaur egungo konposi-



ESPAINIAKO TRANTSIZIOA

“Trantsizio garaian, euskal obrak berreskuratzeko nahia hauspotu zen, eta, operari dagokionez, José Olaizolaren *Oleskari zaharra* grabatu zen. Loiolako Herri Irratiak emititu zuen, eta handitxik atera da grabazioa. Eduardo Mokoroaren *Leidor*, Jose Oñateren *Itziar* eta besteren batzuk grabatu ziren. Baina ez dira dozena erdira ere iristen. Gure ondare lirikoak zeharo ahaztuta dago”.

MASKULINOA

“Historikoki, kantariak izan ezik —María Callas bat-eta—, gainerakoak gizonezkoak izan dira. Orain, berriz, emakume-zuzendaria ez da berria. Hala ere, desoreka handia da oso. Beharbada, bizirik diren operagile inportanteenak George Benjamin ingelesa eta Kaija Saariaho finlandiarra ditugu. Saariahok *L'Amour de loin* (Urrutiko maitasuna) aurkeztu 2000. urtean, eta lurrikara eragin zuen operaren munduan. Gizartearen isla da opera”.

Azken hitza

AURPEGIA ARGITZEKO MODUAK

“Operazaleok pasioak batzen gaitu. Bateko eta besteko operamanaldian ikusi ohi dugu elkar, eta laster gara solasaldian. Guri aditu eta nire neska-lagunak esandakoa duzu: ‘Burutik zaude-te, zuei aditzea delirantea da. Ez dago asmatzerik zertaz ari zareten’. Horrekin batera, hauxe esaten dit: ‘Operaz ari zaretenean, argitu egiten zaizu aurpegia’”.

toreen lanik ere. Baina hori ez du inork planteatzen. Eta hortxe gaude.

Batetik bestera ohi zabiltza operak aditzen, zertan da haren egoera gurean, eta inguruko herrialdeetan?

Eman dezagun, asteburuan Vienara edo Berlinera joan, eta ostiraletik igandera hiruzpalau opera ikusteko aukera genuke, hiruzpalau antzokitan. Sarrerarik garestienak 80-100 euro balioko luke: lau ikuskizun ezberdin, garai eta estetika ezberdinekoak, aukeran. Europa hegoalde honetan, opera bat izango genuke aukeran han edo hemen. Londresen eta Parisen, berriz, noiznahi duzu zernahi, hain baitira bi hiriok metropoli handiak. Operara joatea ez da luxua, nahiz Bilbon Europako opera-denboraldirik garestiena dugun. Euskalduna Jauregian. Europako antzokietan haur eta gazteak opera aditzen ikustea ez da harrigarri. Hemen bai. Garai batean, hemengo opera emanaldietako *baby*-a nintzen. Orain, hor nonbait. Batez besteko adina oso altua da. Ilbilbidea behar da operak eskaintzen duenaz osoki jabetzeko. Prozesu bat da.

Bilboko opera-denboraldia aipatu duzunez, besterik bada gure herrietan?

Inoiz baino opera-emanaldi gehiago dituzu gaur egun Euskal Herrian! Donostia, Iruñea, Bilbo –Euskaldunan ez ezik, Arriagan ere bai–, eta, bestalde, maila txikiagoko zenbait denboraldi ere bada, apalak, baina oso inportanteak: Irungo denboraldian bizpahiru opera dituzu, ohiko tituluak, 25 euro inguruko sarrerak, lehen-lehen mailako interpreterik ez, baina oso maila duinekoak beti. Irunen ez ezik, Arrasaten, Basaurin, Burlatan, Tuteran... ikusia nago opera. Baliabide eskaseko konpainiak ohi dira, baina txukun jarduten dute. Merezimendu handikoak iruditzen zaizkit, artea zabaltzen dute, formatu txikian, herri txikietan. Gobernu batek egin beharko lukeen lana eginen dute.

Gobernuak egin beharko lukeen lana?

Nire ustez, nor den gobernu batek opera zabaltzeko lan-ildo zehatza izan beharko luke, opera eskuragarri jarri antzoki guztietan, zirkuitu bat osatu. Euskal Herrian, antolatzaile bakoitzak bere eremua duela oso du barneratua. Irungoek Irunen, donostiarrek Donostian... Hemezortzi kilometro daude batetik bestera. Batean egiten dena ezin da bes-

tean eskaini? Bilbon egiten dena, ezin eskaini da Basaurin, Santurtzin edota Barakaldon? Antzoki eta auditorio bikainak ditugu, bai batean eta bai besteetan! Baina baserritarkeria da nagusi, nik neurea eta kito! Hitz eginda nago zenbait gestorekin, eta alferrik da. Ez dago modurik.

Gurean bada opera konpositorerik, interpreterik?

Hor ditugu beti Julian Gaiarre, Florentzio Constantino... izar handiak. Gaur egun, beharbada ez dugu izarrik, ezpada kantari multzo oso interesgarri bat. Munduko antzokirik garrantzizkoenetan ari dira lanean, eta futbolari balira mundu guztiak ezagutuko lituzke. Mikel Atxalandabaso, Miren Urbietta... Oraintxe opera bat euskaraz idatzi eta bikain interpretatzeko modua genuke.

Opera euskaraz idatzi...

Aixkiria! Eta non da, bada, gure ondare lirikoa?!... Biltegian, erabat hautsez estalia! Garbitzen hasiko bagina, ehunka titulu azalduko litzaizkiguke. Iragan udazkenean, IBS Classical etxeak *Maitena* argitaratu zuen, Charles Colinena. Beste bi ere argitaratu nahiko lituzke: aurtun, Etienne Intxaustiren *Lide* eta *Ixidor*, eta hurrengo urtean Jesús Guridiren *Mirentxu*. Primeran. Oraintxe hamabi dira euskarazko opera argitaratuak. Etxean ditut guztiak. Baina Guridiren *Mirentxu* lan argitaragabea da oraindik. Lotsagarria da hori.

Zer egin beharko litzateke, zure ustez?

Nahitaezkoa da grabazioak argitaratzea, nahiz erosle gutxi izan. Argitaratuta, obra ezagutuko dugu, ezagutuko ditugu euskal kantari zenbait, eta, horrekin batera, musika hau nola interpretatzen zen XXI. mendearen hastapenean jakingo dute etorkizunean. Ez dakit erakunde publikoek noiz hartuko duten gure ondare lirikoa babesteko neurriak! Babesteko, eta zabaltzeko. Frantzisko Escuderoen *Zigor*-en grabaziorik ez dago; *Gernika*-rena, bai. Guridiren *Amaya*-ren azken grabazioa, 1999koa da, kantari iparramerikarrek interpretatua, garaian ez zegoelako sei-zortzi kantari euskaldun hura interpretatzeko. Gauza batzuk ondo egin dira,

hala ere. Usandizagaren hiru operak eskuragarri ditugu orain, baina *Enarak*-en azken grabazioa frankismo gorrian egin zen, Ataulfo Argentak zuzendurik. Bertsio berririk ez da! Horrela bizi gara.

Euskadi Irratian lehen, eta Radio Vitorian orain, erakutsi ohi duzun pasioaz jardun duzu...

Ez dakit bestela egiten. Horixe esan zidan Radio Vitoriako arduradunak: “Euskadi Irratian jartzen duzun pasioa, Radio Vitoriako saioan asterokoa izatea nahiko nuke”. Ni neure parte egiten saiatzen naiz. Inoiz esan izan dit entzuleren batek: “Operara joateko gogoa pizten diguzu, behintzat! Zuk gozatzen duzun erdia gozatzen badut, merezi izango du!”. Beste batek, beste behin, irratiko parte hartzeak aditu eta erabaki omen zuen emaztegaia operara eramatea, ezkontza-eskaria bertan egiteko. Hura izerdia nirea!, a zer ardura!

Goazen operara!

Aurreiritziak utzi, ikuskizunaz garbi gozatzeko eran besaulkian jarri, eta bali-teke inoiz pentsatuko ez zenukeena gertatzea zure barruan. Obra aukeratzea komeniko da, hala ere. Verdi, Puccini, Wagner... hor dira beti, garai bateko gaiak jorratzen dituztela. Haatik, gaur egun, XX. mendeko opera bat hurbilekoa eta ulergarriagoa gertatuko zaigu. Testuak euskaraz eta gaztelaniaz daude-nez, obra jarraitzeko eragozpenik ez dago.

“Ikusi ‘Wozzeck’, genero indarkeria, langileen pobrezia eta zapalkuntza, klase zapaltzaileen jarrera burgoia... Hori erraz ulertuko du ikusle gazteak”

Oraingo eguneko opera gomendatzen diguzu.

Esaterako, Alban Bergen *Wozzeck* ikustera eramango nituzke gazteak. Hortxe, ordu eta erdian, hizkuntza berezi batean, genero indarkeria. Ikusi *Wozzeck*, genero indarkeria, langileen pobrezia eta zapalkuntza, klase zapaltzaileen jarrera burgoia... Hori erraz ulertuko du ikusle gazteak. Gaurko estetika du, ordenagailuen eta informatikaren erabilerak gauzak erraztu ditu, bideoaren erabilera... Opera garai-kidea arte izugarria da, beste zenbait artekin lortzen ez duena lortzen du: zeure barrua astintzea, adibidez. Ireki mentalitatea, etorri operara, ikusi obra bat, ikusi beste bat... ●



Besteen errepublikak eta gurea



KARMELO LANDA MENDIBERE
HISTORIALARIA

Errepublika hobesten dugu, seguruena, euskal herritar gehienok, baina, orain arte bederen, ezagutzen ditugun errepublikak besteenak dira, eta ez gureak. Frantzian, adibidez, printzipio errepublikarrak omen dira nagusi eta estima handiko, monarkiaren erregimen zaharrean erregeen manupeko *hirugarren estatukoak* matxinatu eta *citoyen* izatera iritsi zirenetik. XVIII. mende amaieran gertatu zen hau, eta 1792. urteko iraileko egun batez, monarkia ustela betirako abolitu eta Lehen Errepublika jarri zuten indarrean. Ez zuen, hala ere, luze iraun, Napoleon Bonaparteren agindupeko Inperioa nagusitu baitzen 1804tik aurrera.

Iraultza berria behar izan zuten, 1948koa, Bigarren Errepublika antolatzeko, baina benetan bitxia gertatu zen, presidentetzarako Bonaparteren iloba hautatu baitzuten, eta beronek, leinuaren senari jarraituz, estatu kolpea jo zuen urte gutxitara, inperioa berrezarri eta bere burua enperadore izendatuz.

Hirugarren iraultza batek zabaldu behar izan zion bidea Hirugarren Errepublikari, kasu honetan Komuna deitutako herri-matxinada indartsua izan zen. Hortik sortu zen hirugarrenez errepublika. Nazien inbasioak lurperatu zuen modu ezin gordinagoan.

Bigarren Mundu Gerra deitua amaitzean soilik birsortu zen errepublika berriro, laugarrena. Frantzia kolonialistak

Euskal errepublikaren orubea Euskal Herrian bertan dugu, lurralde osoa hartuta, eta aliantzak bertan gauzatu behar ditugu

Indotxinan eta Aljerian jasandako porrotak probokatu zuen laugarren horren amaiera eta estatu kolpe modukoak eraman zuen De Gaulle jenerala agintera.

De Gaullek berak ezarri zituen baldintzak Bosgarren Errepublika jaio zedin, eta horretan dabil gaur egun ere Frantzia, errepublika nominal horren gainetik errejimen presidentzialista izan eta inperio neokolonialetik gehiago daukala jatorriko berdintasun, anaitasun eta askatasun aldarrietatik baino.

Gauza ezaguna da errepublikak errejimen gisa bizitza oso labur eta prekariora izan duela estatu espainiarraren historian. Bi errepublika-saiakera espainiarrek amaiera benetan triste eta latza izan zuten, bai. Azken diktadorea ohean hil ondoren, hala ere, bazen itxaropena, herritar askoren artean, indar aurrerazaleek berriro ere sistema erre-


publikanoa sortuko zutela. Hauteskundeetan goraka zihoan PSOE alderdiak irmoki aldarrikatzen zuen garai batean nortasun errepublikazalea. Gerora, Espainiako Gobernura heldu diren bakoitzean, aldiz, aurretik agindutakoaren kontrara aritu dira beti, eta gaur bertan monarkia erabat ustelduen euskarri sendo bihurtu dira, Espainia barruan zein nazioartean. Azken froga argia, Marokoko erregetza feudal ezin atzerakoiagoari Sánchez presidente progresista omen zenak eskainitako oparia, Saharako errepublika sakrifikatu eta benetako traizio historikoa burutuz. Lehenago ere, errepublika katalanaren aldeko prozesu demokratikoa hondoratzeko eskuin mutur espainiarrarekin bat eginda jokatu zuen, hain zuzen.

Euskal errepublika da guretzat errejimen egokia, zalantzarik gabe. Historiatik eta esperientziatik ikasi beharko dugu zein den herraino heltzeko bide posiblea. Dagoeneko ondorio batzuk atera eta argitzeko moduan gaudela esango nuke. Frantziako eta Espainiako agintariek, deitura progresista hartzen dutenekin ere, aliantza taktikoak burutzea ez da euskal errepublikarako bidea, bistan denez, kontrako norabidean doa. Euskal errepublikaren orubea Euskal Herrian bertan dugu, lurralde osoa hartuta, eta aliantzak bertan gauzatu behar ditugu, printzipio errepublikazale propioak oinarri eta giltzarri direla. ●

Miren Agur



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Bere azken liburua aurkeztera etorri zen Mikel. Eta, jakina, pare bat pote hartu genituen solasaldia-
ren ostean.

Odolaren usaina euskaraz irakurri nuen lehenbiziko liburua izan zen. Ez txarto ulertu. Euskaltegia irakurritakoez aparte, *sasieuskalheldutasunean* erosi eta irakurri nuen lehenbizikoa. Edozein maitasun harremanetan beti dira mugarri gogoangarriak.

Ez genuen elkar fisikoki ezagutzen. Eta ezin dut ekidin, baina halakoetan *back stag*-era sartzea lortu duen nerabearen antzera sentitzen naiz. Eta hara! bera nire bizi ibilbidearen parte den moduan, ni ere berarena nintzela kontatu zidan, bere liburu batera nire zerbait eroana eta guzti. Oraindik ez dakit horrelakoetan zelan sentitu.

Hain da komunikazio intimoa literatura sortzen duena, hain da eskuzabala beste pertsona batzuei gu habitatzen uztea, hain ezabaezina uzten diguten aztarna... Bai, hala da, idazleari gu habitatzen uzten diogu. Baina ordain edo truke justua, izan, bada, idazleak bere arimaren zirrikitu bat zabaltzen baitigu araka dezagun.

Beste mugarri bat euskara eta euskal literaturarekiko nire amodioan *Azala-*

ren kodea izan zen. Sujetadore umela telebistako umearen gosearen aurrean, edo bizkarrean hazka egin ostean ohera sartu den piztia... hil artio lagunduko nauten irudiak. Barruan gelditzeko ohi-tura baitauka barrutik sortu denak.

Eta barrutik, gorputzetik, idatzi izan digu Miren Agurrek, emakume gorputzetik, sentipenak pentsatzeari utzi eta gezurrik esaten ez duen lurralde baka-
rrean, odol era haragian, senti ditzagun. Samurtasun latza. Horixe da bere literatura. Badirudi itsasoa bare dagoela, baina korronte bortitzen tirakada igartzen da uretara sartu bezain pronto.

Azalaren kodea argitaratu nahi izan ez zutenek ez zuten imajinatu Espainia-ko Kritikaren Saria jasoko zuenik. Beste hainbat sari etorriko ziren gero. Gaur arte. Eta, ziur asko, etortzeko dagoen guztia. Oraindik ezin izan diot galdetu, baina ez zait begitantzen bere bizi osoa euskal letrei eman dien norbaitentzat euskaltzain oso izendatu izana baino aitortza eta poztasun handiagorik.

Bai, gauza asko gertatu dira euskal literaturan azken hogeitaz urteotan. Eta gehienak emakume eskutik etorri direla esatera ausartuko naiz. Miren Agurren lorpenak bereak dira, lan eskerga egin-da, setati eta tematsu. Ausart, beneta-

ko ausardia behar delako, espantu eta arrandiarik gabe, dena utzi eta idazle la-
nean zentratzeko. Baina, ni pertsonale-
tik ni konpartitura idazten duen bezala, denonak ere badira zati batean.

Ez naiz literatur kritikan aritua, bai-na azken urteotan norbait euskal lite-
raturan bide urratzailea izan bada, hori Miren Agurtzane Meabe Plaza andrea izan da. Eta hori ez da nahita edo beste zerbaiten bila egiten, ezta kanpotik sus-
tatzen ere; ogi papurrak botatzea bezala da, jakin barik afruntuak eramango di-
tuen, muzin egingo zaien edo zapalduta amaituko duten.

Benetan sinesten dut erraldoia dela eta halaxe esan diot entzun nahi izan didanari, baita Mireni ere. Hori eta papa-
rrean harrotasunak gainez egiten didala.

Maitasun gutun hau idatzi behar nuen, emozioz eta korapiloa eztarrian, ez daitezen berba hauek Lekittoko moi-
lan edo Arranegian edo Eskolapean hai-
zatu. Ahalik eta urrunen hel daitezen, ahalik eta gehienek jaso ditzaten. Har-
eman guztietan bezala, hartu ahal izate-
ko, eman egin behar delako. Eta Miren Agurrek asko eman digu. Heldu behar
zen momentua berak ere Euskal Herria-
ren aitorpen zabala eta ukaezina, behin-
goz, jasotzeko. ●

'Gamberro'



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRASKASLEA ETA
IKERLARIA

Galiziako lagun batek anaiaren taldea gomendatu zidan duela urte batzuk: Terbutalina zuen izena. Entzun nuen, noski, sartu nintzen haien sare sozialetan, eta pixka bat gogorarazi zizkidan Siniestro Total, Os Resentidos eta Anton Reixa, eta lurralde hartatik di-tudan erreferentzia apurak. Jostalariak, bihurriak, umoretsuak –absurdutik gertu maiz–. Zaku berean sartu nituen denak, ale, talde galiziarren tiraderara. Azaldu nion lagun galiziarri sentipen hori, baina ez nuen adjektibo egokirik aurkitzen talde horien jarrera deskribatzeko. Hark eman zidan gakoa: *gamberro*.

Multzokatzeekin segituz, Ipar Euskal Herrian antzeko joera sumatu izan dut azken urteotan, zenbait talderen baitan. Zezenaren taldea izan liteke adibide esanguratsu bat. Eta begira, talde horretako kide Paxkal Irigoien polifazetikoa- rekin egin nuen topo Durangoko Azokan, eta kontatu nion Diabolo Kiwi garazta- rren kontzertuan egon ginela aste pare bat lehenago, txango exotikoa eginda Irundik Biriatura. Diabolo Kiwi ere estilo horretatik urrun ez, eta ildo *gamberro* horri buruzko harrikada bota nion Pax- kali, Galiziako taldeekin egindako kon- parazioa, eta abar. Ez nintzen konturatu mugaz bestaldeko biztanle gehienentzat hitz ezezaguna dela *gamberro*, eta azal- tzeari ekin nion, arrakasta handirik gabe.

Zezenaren taldeak instrumentuak entregatu zituenetik, nire buruan Dia- bolo Kiwi pasa da Iparraldeko talde *gamberroen* ordezkari nagusi izate- ra. Eszenatoki gainean jarrera *desen- fadua* igortzen zuten (nola azaldu hori ere Paxkali?), transmititzera iritsi daitekeena izatearen arintasun jasan- garria, are gozagarria. Letra bitxi eta deszifratu ezinak, ia infantilak, maiz erreferentzia gastronomiko xelebree- kin, itxuraz transzendentzia handirik gabeko errezetak errezitatuz: “Tortilla ta brokoli, ui ui ui, tortikoli, kiwi bat bi marrubi, bai, bai, bai, tutti frutti”, besteak beste. Hortxe beste gakoetako bat: Terbutalina talde galiziarrek “gas- tropunk” deitu izan dio egiten duten musikari.

Eta, noski, sumatu nuen musikari garrantzi handia ematen ziotela, aho- tsari bereziki; oso doinu melodikoak, eztitsuegiak izan gabe. Eta abeslari na- gusia, artean ezagutzen ez nuena, ba- tzueta organo atzean erdi ezkutatuta, besteetan aurrean, eszenatokia bere eginez, beti distiratsu.

Pentsatu nuen beharbada denbora batean ez nuela hainbeste gozatuko kontzertu batean; ez zitzaidan burutik pasa, ordea, ezin izango nuela Diabolo Kiwi berriz ikusi, ez behintzat orduko formazioarekin. ●

Gaur, bihar



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Harritzen gara, hamar urte ETak armak utzi zituela eta oraindik, kasik mende erdi batez jasan & ja- sanarazi dugun biolentziaz mintzatzer a- ausartzen ez garela onartu beharrean gaudelarik. Bekatua balitz bezala. Ezin errana. Tabua. Nonbait esperantza han- dia lehertu eta ahalke zerbaitek itotzen bagintu legez... nahiago dukegu errautsa tapiza pean sartu eta aitzina!

Hargatik, lehengo lepotik burua, ara- zo bat agertzen zaigunean, hala nola etxebizitzaren alor minberaren muinean, eta hautetsi zein erakunde politikoen erabakiez harago goazen errebelde te-

matsuak garela frogatu nahi dugunean, mehatxuaren parpaila erabiltzen dugu, automatismo hutsez, demagun Senpe- ren, higiezinaren sei agentzien hormetan “gaur tindua, bihar bonbak” idatziz. Ho- rrek baieztatzen du batzuen larru-azal leun eta ikasiaren azpian, sua sugetzen badabilela, “etsaia” erretzeko beti prest. Herriarrian sentimendu onak tolesten jarraitzen dute... belaunaldi gazteak bo- rroka heroikora bulkatu asmoz ala?

Gogora dezagun, eta gure ardura da, Svletana Alexievitch adiskideak ederki diona: txantxak eta kalakak gehienetan odoletan bukatzen dira. ●

Euskal hezkuntza eraldatzeko txostena eta euskaltegiak



ARKAITZ ZARRAGA AZUMENDI
EUSKARA IRAKASLEA

Berriro inbidiaz begiratzen diogu hezkuntza arautuari euskaltegien talaiatik. Lege berriaren kariatara, eztabaida gogorrak tarteko (greba deialdi eta guzti), hainbat gako jarri dituzte mahai gainean, oraindik zirriborro den horretan.

Publikotasunaren kontzeptualizazioan dago eztabaida gogorrena. Bada, euskaltegien badira titulartasun publikoa duten euskaltegiak (udal gutxi batzuetan, izaera juridiko ezberdinekin eta sarerik osatu gabe), zerbitzu publikoa eskaintzen duten herri ekimeneko euskaltegiak (irabazpide asmorik gabekoak), elizaren titulartasuna dutenak eta, hezkuntza arautuan ez bezala, mozkin banaketak dituzten enpresak ere bai; horiek ere diru publikoa jasotzen dute.

Hezkuntzan “eredu eleanitza” ere gatazka iturri. “D eredu osatua” beharko luke, murgiltzea izan baita euskalduntze prozesurako baliagarria izan den bakarra. Baina egia da atzerriko hizkuntzetan zer hobetua baduela. Hizkuntzen trataera modu egokian eginez gero, asko hobetu daiteke hirugarren eta laugarren hizkuntzen ikasketan. Metodologia eta materialetan sakontzeko, “Euskara-

Inbidia sanorik ez dagoela onartuta, adituei, sindikatuiei, politikariei...

Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari begira ere jar daitezela eskatuko nieke!

ren Ikaskuntzarako Institutua” sortzea aurreikusten da zirriborroan. Gustura partekatuko genuke tresna euskaltegi-takook.

Ikastetxe bakoitzak hizkuntza proiektu bat egin beharko du, testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, eta proiektu hori adituek gidatu eta ebaluatuko dute. Euskaltegiok Curriculumak egin behar izan genuen orain bost-sei urte, baina aditurik ez gurera, ez aurretik, ez ostean, eta hortxe daude curriculumak, tiradera sakonetan galdurik.

Ikuskaritza sistema ere aipatzen da dokumentuan, baina ikastetxeen errea-

litatea aztertu eta hobetzen laguntzeko tresna gisa. Euskaltegien urte asko dira ikuskatzaileen lana ikasleek matrikula ordaindu dutela konprobatzera mugatzen dela.

Ekosistemetan eragiteaz ere aritzen da. Aspaldi ari gara euskaltegi-tako hainbat lagun esaten ekosistemak izan behar direla gure helburua, ez norbana-koak! Adibidez, eskoletan kirol entrena-tzaileak, gurasoak, irakasleak, bestelako langileak, eskolara euskararik gabe heldu berri diren ikasleak... horiek guztiak eta eskolako erabilera plana bera gure lan esparruak dira! Berdin enpresa, administrazio edo edozein ekosistematan. Baina inon ez gaituzte kontuan hartzen.

Irakasleen prestakuntzaz ere, besteak beste, prestakuntza langileen eskubidea dela aipatzen du. Begiak talo hori irakurtzean. Oraindik zor diot HABEri orain dela 8 urte nire egun libreetan egindako ikastaro bat!

Beraz, eta inbidia sanorik ez dagoela onartuta, adituei, sindikatuiei, politikariei... Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari begira ere jar daitezela eskatuko nieke! Hezkuntzako zirriborroa bera baliagarria izan daiteke hasteko. ●

Hernani, Korrikarekin bat!



22.korrika



Hernanin Apirilak 10

6:49



Asiloa, eskubide hegazkorra



MARTA ABIEGA
EKINTZAILEA

Asilo eskubidea eskatzeko asmoz Bilbora duela lau hilabete iritsi zen pertsonaren bizipena kontatzeari ekingo diot, pertsona horrek hala eskatuta.

Zoriak edo, biok harremanetan jartzea eta ezinezko misio bat partekatzeari nahi izan du: polizia-etxean asiloa eskatzeko hitzordua lortzea. Hitzordu hori internet bidez eskatu behar da poliziaren webgunean. Pertsona horrek hitzordurako ematen zizkidan datekin harrituta, galdera egin nion asilo-gailetan diharduen erakunde batean dabilen ezagun bati. Halaxe dela erantzun zidan, behin eta berriz sartu beharra dagoela, gaur egun hitzorduaren miraria iruditzen zaidana lortu arte. Era berean, esan zidan ez dagoela pautazehatzik, hitzorduak ez direla ordu jakin batean jartzen jendearen eskura, baizik eta ausaz sartu behar dela eta tematu, ez dagoela besterik.

Orduan gogoratu nituen Indautxuko polizia-etxearen inguruan sortzen ziren pertsonen-ilara luzeen argazkiak. Asilo-eskatzaile batzuek gaua ere ematen zuten han, hainbat tramite egin ahal izateko. 2020an pandemia iritsi zen eta ilarak desagertu egin ziren, arrakala digitalak ordezkaturak. Arrakala hori ilarak bezain zitala da, baina badu abantaila bat; ikusezina da, eta begiitsuak, negarrik ez. Agerikoa da, ez dago jende-ilararen argazkirik, ez dago salaketarik. Pandemiak eta itxurakeriak zabalduzako arrakala ez da tekno-

2020an pandemia iritsi
zen eta ilarak desagertu
egin ziren, arrakala
digitalak ordezkaturak.
Arrakala hori ilarak
bezain zitala da, baina
badu abantaila bat;
ikusezina da

logikoa soilik; izan ere, kasu honetan, asiloa bide horretatik lortu behar duten pertsonak, sarritan, gure alfabeto bera ere ez duten herrialdeetatik datoz. Imajina dezagun herrialde batera goazela non arabiera egiten den eta pantailetan nabigatu behar dugula zeharo ezezaguna zaigun hizkuntza batean, zaila, ezta? Lehenengo pantailan probintzia, bigarrenetan poliziarekin hitzordua, hirugarrenean asilo-eskaera, ondoren pasaporte-zenbakia, izena, jaioteguna eta herrialdea. Dena, azkenik, "Game over" pantailara iristeko: "Une honetan ez dago hitzordurik eskuragarri. Lasterr bulegoak hitzordu berriak jarriko ditu zure eskura". Eta horrela egunez egun, astez aste, hilabetez hilabete...

eta dagoeneko lau hilabete igaro dira. Zoritxarrez, badakigu eskubideak urratzeko modu ugari eta gaiztoak daudela, eta izugarri bihozgabea egiten zaigu hau, zehazki.

Esperientzia mespretxagarri horrek alde onik badu, Te cedo una cita plataforma ezagutu izana da. Bertan 1.200 boluntario baino gehiago biltzen dira eta dagoeneko 5.000 hitzordutik gora lortu dituzte. Aspaldi konturatu ziren burokrasia zital honi hainbat aldetatik egin behar zaiola eraso.

2021ean %44 murriztu dira asilo-eskaerak, eta 100etik bosti soilik eman diete aldeko ebazpena. Asiloa eskatzeko hitzordurik lortu ezean, ezin da asilo eskatzailea izan.

Basoetan jazarri eta Maroko hegoaldeko deportatzen dituzte, hesietan jipoitu eta eskubiderik gabe itzultzen dituzte, pateretan bizitza arriskatzeko dute, eta Bilbora iristen direnean, asilo-eskubidea dutela pentsatuz, arrakala digitala eta hipokrisia dituzte zain. Idatzia amaitzen ari naizela jakin dut ukrainiarra bazara hori ez dela horrela: polizia-etxeetan leihatila berri bat zabaldu zaiela. Baina hori itxurakeriaren beste aurpegi bat besterik ez da. Eta sare sozialetan Ukrainako asilo eskatzaileentzat korridore humanitarioak eta nazioarteko babes-izapideak bizkortzeaz aritzen diren bitartean, 44 lagun hil dira Maroko hegoaldean, patera bat hondoratu ostean. Giza eskubideek ere kolorea dute. ●

GURASOAK TALDEAN ERABAKITZEN ARI DIRA

Seme-alabari estreinakoz mugikorra noiz eman

Gurasoentzat, buruko min gehien ematen duen kontuetako bat mugikorrera da. Zein adin daukatenean erosi, erabilera nola arautu... Liskar iturri agorrezina etxe askotan, helduak elkarrekin biltzen hasi dira hainbat herritan, teknologiaren bueltan lanketa egin eta umeei mugikorra emateko adina atzeratzea helburu. Argi dute erabakiak taldean hartu behar dituztela, bakoitzak bere aldetik eginez gero pieza guztiak errenkadan eroriko direlako, domino baten antzera, inork ez baitu nahi haurra isolatua sentitzea mugikorrik ez daukalako. "Kontziente izan behar dugu umeari mugikorra erosten diogunean eragina duela bere inguru osoan", esan digute "Gure aukera, guk 16" taldeko kideek.

 JON TORNER ZABALA

Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako bost gurasok sortu dute "Gure aukera, guk 16" ekimena, gaur gaurkoz "utopia" dirudien arren, umeek 16 urte izan arte mugikorrak ez izatea xede duena. Badakite emaitzak ez direla berehalakoan etorriko eta apurka-apurka hasi dira, maila bereko gurasoen artean itun modukoak egiten, telefonoa emateko adina gradualki atzeratzen joateko. Bidean, teknologiaren hamaika adarren gaineko lanketa egin nahi dute, arreta jarriaz ume zein helduek egiten duten erabileran, guztiok jabetu behar dugulako zein tresna "potentea" daukagun esku artean.

2019an hasi ziren gaia lantzen, ikastolako ama eta Bidelagun proiektuaren sustatzaile Miren Rosek teknologiaz emandako guraso eskola abiapuntu. "Askok genuen kezka bera, baina bakoitzak ahal bezala egiten zion aurre bereari. Jabetu ginen elkarrekin arituz gero zerbait egin genezakeela", azaldu digute Miren Rosek eta Amaia Elorzak. Azken horrek 7 eta 9 urteko bi alaba ditu Salvatore Mitxelengan. "Gaiaz hitz egiten hasi ginen, adituek idatzitakoak irakurtzen, eta konturatu ginen haurrei goizegi ematen diegula mugikorra. 9-10 urteko umearen burmuina ez dago prest tamainako erreminta erabiltzeko, gaitasunik ez duelako informazio guztia prozesatzeko, filtrorik gabe iristen zaiona tartean. Haurraren garapenaz hitz egiten da, 11 urteko umea oso heldua izan daitekeela bere adinerako. Ez, ez behintzat horrelako tresna bat maneiatzeko. Helduok ere ez dugu ongi erabiltzen eta!". Adibide bat jarri digute: "Ondokoaren seme-alabari argazkia atera eta besterik gabe bidaltzen dugu whatsapppe, ziur asko baimenik ere eskatu gabe. Gurasook maiz ez baldin bagara kontziente egiten dugunaz, pentsa umeak. Aldagelan-eta ateratzen dituzten argazkiek, esaterako, min handia eman dezakete, baina 12 urterekin ez dira kontziente".

Galdera baten bueltan ekin zioten: nola atzeratu mugikorra erosteko unea? Galderak galderen atzetik, oinarrira jo zuten: Umeari ez badiogu mugikorra eman nahi, zergatik

ematen diogu? Erantzuna iguala zen maiz: "Ez dugu gelako azkena izaterik nahi". Arrazoi pisutsua da, azken finean umea baztertuta sentituko delako berak ez beste guztiek baldin badaukate. Zer egin, beraz, "atzeratua" gera ez dadin? "Ikusi genuen adostasun batera heldu behar ginela, ahalik eta etxe gehienetan seme-alabei mugikorra emateko adina atzeratzen joateko pixkana-pixkana". Lehen Hezkuntzako (LH) 6. mailako (11-12 bat urte) guraso ugari erabaki zuten baietz, ikasturte hartan behintzat eutsiko ziotela mugikorra erosi gabe. Sei hilabetera berriro bilduko ziren, bakoitzaren egoeraz hitz egin eta aurrera begirako urratsak zehazteko.

Elkarteko kideen hitzetan, gurasoen arteko komunikazioa funtsezkoa da, baita haien eta seme-alaben artekoa ere, etxean gaiaz hitz egin eta akordioak lortzea denen artean: otorduetan mugikorrak sukaldetik kanpo eramatea, gauean wifia itzaltzea... "Taldearen indarra gakoa da, seme-alabek ikusten baldin badute gainerako etxeetan ere berdin jokatzen dutela, lasaia geratzen dira". Horrek, noski, eskatzen du haiekin denbora gehiago ematea, eta helduek ere ohiturak aldatzea. "Argi utzi behar zaie ez dela opari bat, baizik eta tresna hori gurea dela, momentu konkretuetan erabiltzeko honen-gatik edo hargatik. Kontziente gara mundu digital batean jaio eta hezi direla, hori ezin da ukatu, baina modu arduratsuan jokatzen ikasi behar dute. Baita guk ere. Arauek guztientzat izan behar dute, mugikorra ez dadin izan liskarrerako arrazoi nagusia, maiz gertatzen den moduan".

Azaldu digute eurenaz oso bestelako iritzia duela jende batek, normaltzat daukatela 9 urteko umeak mugikorra izatea eta ez dutela arri-skurik ikusten. "Zilegi da eta aintzat hartzen dugu. Horiei ez diegu esango zuk hau eta hura egin behar duzu. Baina inportantea da gurasoek kontzientzia hartzea, gaiaz pentsatzea, besteekin hitz egitea...".

"Batuetan zaila da jendearengana heltzea", gaineratu du Rosek. "Askok pertsonalki hartzen du: 'Nire erabakia da, utzidazu nahi dudana egiten, nor zara zu niri deus esateko?'. Ados, zure erabakia da mugikorra erostea,

baina kontuan izan eragin zuzena duela seme-alabaren ingurukoengan, ikasge-lan edota lagun artean. Kontziente izan hortaz, zeren eta bestela ttak ttak ttak domino piezak bezala eroriko gara denok”.

OLATUARI NOLA AURRE EGIN

Nuria Plazak alaba eta semea ditu Hernaniko Langile Ikastolan, LH3n bata eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1. mailan (12-13 bat urte) bestea. Han ere duela bi urte inguru hasi ziren gaiaz hitz egiten 10-11 urteko umeak zituzten guraso batzuk, Miren Ros berak hitzaldia eman ostean mugikorraren erabilera. “Gutxira, ordea, pandemia heldu zen, harremanak hoztu ziren eta are zailagoa bihurtu zen gure artean elkartu eta lasai hitz egitea”, kontatu digu Plazak. Iaz, baina, umeak jada LH6en zituzten guraso horiek erabaki zuten hainbat tailer eta hitzaldi antolatzea, gauzak martxan jartzeko berriz ere. Batzuek erabakia hartu zuten: DBH1era

mugikorrak gabe bidaltzea, eta hilabete gutxiren buruan ikustea ea ituna denbora luzeagoan mantentzerik bazegoen.

“Pandemiak banandu egin gintuen”, esan digute Zarauzko gurasoek, eta bakardade horretan askok erosi zizkieten mugikorrak umeei, baita “ituna” egina zuten batzuek ere. “Galdetu genien zergatik, eta erantzunak izan ziren: ‘Amonak erosi dio’, ‘nire mugikor zahar bat aldatu dut eta...’ Ez ziren pisuzko arrazoiak. Jabetu ginen lanketarik egin ezan akordioa erori egingo dela”.

Solaskideek diotenez, ez gara erabat kontziente umeen esku uzten ditugun gailuen ahalmenaz. Halaber, eman digute aditzera gaiaren inguruan interes falta dagoela, edo agian beldur gara. “Esango nuke teknologiaren kontu honek guztiak gain hartu digula, olatu handiegia denez gero”, uste du Elorzak. Ostean gehitzeko: “Olatu handia da, bai, baina gure txikitasunetik badago gauzak egitea, horretan sinesten badugu behintzat. Lortuko bagenu 9-10 urte

dituztenean ez baizik eta 12rekin erostea, pauso handia litzateke, are gehiago aurretik lanketa egin baldin badugu etxean. Ez gara beti arriskuez hitz egiten arituko, kontuz hau eta kontuz bestea, Elizak egiten zuen bezala, bekatua gora eta beheara, beldurra akuilu. Erabilera arduratsua da gakoa, eta gauza onak ere nabarmentzea”. Helburua ez baita umeak izorratzea, eurek pentsatuko duten bezala ziur asko.

Rosek ere erabileran jarri du arreta, eta balizko “debekuez” galdetu diogunean, erantzun digu ez dela hori asmoa, “inondik inora ere”. Ez dira esaten ari seme-alabek 18 urte dituzten arte ezin dutela mugikorrak erabili, baizik eta haiena izaten dutenerako komeni dela gaiaz hausnartu eta eztabaidatzea.

Gurasoak ez dira esaten ari umeek 18 urte izan arte ezin dutela mugikorrak erabili, baizik eta haiena daukatenerako komeni dela gaiaz eztabaidatzea

Etxeko diru-sarrerak eta mugikorraren erabilera

Neurri batean bederen, guztiok bat etorriko gara esaten digutenean seme-alaben bidaide izan behar dugula teknologia kritikoki erabiltzen irakatsi/ikasterakoan. Batzuetan, ordea, ez da erraza gauzak patxadaz azaldu edota umeak pantailengandik urruntzeko denbora hartzea, inork esan diezagukeen arren aitzakia merkeak direla. Duela hamar bat urte, arrakala digitalaz hitz egitean, arazoa zen ume aberatsenek soilik zutela sarbidea internetera; aldiz, gaur egun, teknologiaren erabilera orokortu egin denean, arazoa kontrakoa da: erosteko ahalmen handiagoa duten familietan errazagoa da umeek egun osoa mugikorrari itsatsita pasa ez dezaten lortzea, Common Sense Mediak AEBetan egindako ikerketaren arabera. Zenbat eta diru-sarrera txikiagoak, etxeko txikienek orduan eta denbora gehiago pasako dute pantailaren aurrean, datuek azaleratu dutenez. “Zenbat langile-familiak du aukera seme-alabak pantailengandik urrunarazteko?”, dio erakunde horretako ordezkari María Álvarezek. Edo nola kudeatu egoera gurasoak ez badira ados jartzen umeari mugikorra eman ala ez? Areago banandurik baldin badaude. Etxe bakoitza mundua baita.



LAGUNAK

Zarauzko ikastolan, ekimenaren hastapenetan LH6en zeuden umeak DBH2n daude orain. Jada oso gutxi dira mugikorrak ez duten 13-14 urteko gazteak, Gabonetan eskuratu dituzte askok. 12-13 urtekoen artean hamabostek ez beste guztiek daukate; aldiz, urtebete edo bi gazteagoen geletan, dozena erdik baino gutxiagok. Kontatu digute umeek presioa egin egiten dutela, baina nahikoa erraz eutsi diotela tentazioari, ikusten dutelako inguruko lagun askok ere ez dutela telefonorik. “Gakoa hori da”.

Bazter guztietan bezalaxe, Hernaniko etxeetan ere hazi da mugikor kopurua Gabonetan. Langile eskolan, DBH1eko 30 bat ikaslek ez zeukaten mugikorrak abendua baino lehen, eta ostean, hamar inguruk. Plazak dio gurasoek ez dutela batzea lortu, faltan sumatzen duela komunitate gisa funtzionatzea, gai guztietan oro har. Bere ustez funtsezkoa da elkarrekin hitz egin eta erabakiak denon



"Gure aukera, guk 16" taldeko kide dira Miren Ros (ezkerrean) eta Amaia Elorza, Zarauzko ikastolako gurasoak. "Lortuko bagenu umeek 9-10 urte dituztenean ez baizik eta 12rekin ematea mugikorra, pauso handia litzateke, are gehiago aurrez lanketa egin baldin badugu etxean", diote.

artean hartzea: "Adostuko bagenu mugikorra emateko adina apur bat atzeratzea... Alde handia dago 11, 12 edo 13 urterekin erosi". Semea jarri digu adibide moduan: "Institutuan-eta ikusi dituenak ikusita, gatazkak, ikasle batzuen portaera... Neurri batean konturatu da ez daudela prestatuta horrelako tresna bat erabiltzeko. Berea ematen diogunerako, iruditzen zait kontzientzia apur bat izango duela arriskuez, ekonomiko koki duen kostuaz edota arduraren pisuaz. Esaten digu lagunek daukaten berak ere izango duela, bakarra ez izateko. Ulertzekoa da. Edonola ere, ez da gure asmoa semea 'bakarturik' uztea".

LANKETA, TXIKITATIK

"Inongo gurasok ez du seme-alaba isolatua geratzerik nahi, eta institutuan hastean eskura jartzen diote mugikorra", idatzi du Diana Franco teknologian adituak ARGIAren 2.771. zenbakian. Hurbilekoa duen guraso baten esperientziaz ari da, zeinak Android sistema eragilea duen mugikorra erosi dion haurrari, eta erabili ahal izateko gailuak eskatu dizkion operazio guztiak egin dituen. Laguna "lasai" dago, mugikorrak erabakitzen duelako haurrak zer ikusi dezakeen

eta zer ez, baita noiz piztu eta noiz itzali behar den ere. Aitzitik, gurasoak ez dauka erabaki gehiegi hartu beharrik, eta haurrarekin sesioan hasteko arriskua murrizten da. Bake santua. Diana Francoren hitzetan, baina, gauza horiek seme-alabekin adostu beharko lirateke. Gure irizpideak gailendu behar dela dio, "onena ez bada ere, ikasteko bide bat delako. Eztabaidak txikitzeko aitzakiarekin teknologiarik gure bizitzan agintaritzea emateak mesede baino kalte egiten digula uste dut".

Mugikorra emateko unea heldu baino lehen lanketa egin beharra dagoela konbentziturik, LH3tik -haurrek 8-9 urte dituztenean- hasiko dute prozesua Hernaniko Langile ikastolako guraso batzuek, ahal izanez gero talde indartsua osatu eta ikastetxearekin batera bi norabideko prozesua abiatzeko. "Egia da gurasoen auzia dela eta ezin dugula dena irakasleen esku utzi, baina harremana izan behar dugu eskolarekin". Parentesi gisa, esan 2018an Frantziako Gobernuak debekatu egin zuela 15 urtez azpiko ikasleek ikastetxean mugikorrak eta ordulari adimendunak erabiltzea, izan ikasgelan zein atsedean-orduan edo jangelan. Institutu ugari aplikatzen

Gurasoen bizibena

Erreportajearen harira gaiak galdetu diogu hainbat helduri. Hona kontatu dizkigutenak:

“11 urteko ilobak ez dauka mugikorrarik, eta amak esan dit baztertua geratzen dela maiz, plan asko whatsapppe egiten dituztelako lagunek”.

“DBH1ekoek txangoa zeukaten, eta ume batzuek mugikorra eraman zuten. Zenbait gurasok ikastetxeari eskatu zioten eskola jardunean indarrean dagoen araua, mugikorrak ez eramatea gelara, ibilaldietara ere zabaltzea. Ez zuten erantzunik jaso, eta hurrengo irteerara guztiek eraman dute mugikorra”.

“12-13 urtekoen irteera bi egunetarako. Irakasleek eskatu zuten mugikorrak ez eramateko umeek. Alferrik. Batzuek eraman zuten. Irakasleek erabaki zuten txangoak iraun bitartean mugikorrak kentzea; itzultzean, aita batek sekulako kalapita sortu zuen, ea irakasleek nor kristo zirela pentsatzen zuten bere semearekin mugikorra kentzeko”.

“12 urteko mutikoa zen mugikorrak ez zeukan klasekide bakarra. Irakasleak gurasoei deitu zien, semea baztertuta ikusten zuela, eta mesedez erosteko berari ere mugikorra”.

“DBH3koek mugikorra eraman dezakete gelara, itzalita. Atsedean orduan halere erabili dezakete”.

“Azkenaldian liskar handienak mugikorra dela-eta izan ditugu 13 urteko alabarekin. Deitzen diogunean maiz ez digu hartzen, esaten digu estaldurarik ez zegoela, alarma isilduta zeukala... Etxean ere, hura ez bada, tableta, beti zerbait”.

“Ordurako gurasoak lo egoten gara eta ez gara konturatzen, baina gauez ere hor aritzen dira, bideo-jokoak direla, Snapchat... Ez nau harritzen irakasleek esatea ikasle asko nekaturik heltzen direla goizean. Gauean wifia itzali edo mugikorra kentzen badiezu urduri jartzen dira, tarte horretan dauden nobedadeak galtzen dituztelako”.

“Institutuan esaten digute DBHko gazteek ezin dutela mugikorrik eraman, harrapatzen badituzte hura kendu eta eguna amaitzean itzuliko dizkietela, eta bigarren harrapatzean hurrengo egunera arte konfiskatuko dituztela. Irizpide horiek guri esan bai baina ez dituzte betetzen, semeak kontatu didanez”.

“Semeak futbolekin jokatzen du. Azkenaldian mugikor ugari lapurtu dituzte aldageletan. Ez dira konturatzen mugikor bat bertan uzteak zer esan nahi duen. Helduok ez dugu eramaten, edo giltzapean gordetzen dugu, baina haiek...”.

“Deitzeko baldin bada, badira beste gailu batzuk, ordulari adimendunak esaterako. Lehen urratsa hori izaten da, 4. edo 5. mailan, hasten direnean herrian bakarrik ibiltzen. Baina umeak ez dira horrekin konformatzen”.

“Nire semearen gelakideak, 9 urte ditu, gauean maiz hartzen du lo tableta buru azpian duela, haren aitonak kontatu digunez”.

“Google-ekoak bizi ibili dira pandemian. Google Classroom, esaterako, oso baliabide egokia da irakaskuntzarako, baina badut kezka: Zenbat informazio eskuratzatzen du hortik eskolaz edota umeek?”.

“Institutuan, mugikorrik ez daukaten neska batzuei deitzen diete 'Las sinmo'. Horrek bereizten ditu”.

“12 urteko alaba da mugikorririk ez duen ia bakarra. Aurrekoan esan zidan nahiago zuela etxean gelditu, lagunekin atera baino, etengabe daudelako telefonoari begira. Batzuetan, etxean gaudenean nire mugikorra uzten diot. Hor aritzen da saltseatzen; lagunak kontaktatuak sartu dizkit”.

“Ez dut uste 11 urteko alabak mugikorra behar duenik. 'Eta deitu nahi badizuet?' galdetzen digu. Guk erantzun: 'Badakizu non ibiliko garen, amama non topatuko duzun... Lokalizatuko gaituzu”.



JON TORNER ZABALA

zituzten antzeko neurriak lehenagotik ere, baina zuzendariak legearen babespean joka dezakete gaur egun. Institutuek aukera dute, baina ez obligazioa, mugikorraren erabilera erabat edo partzialki debekatzeko. Hego Euskal Herrian antzeratsu gertatzen da, legerik ez dagoen arren horren inguruan: ikastetxe bakoitzak egokien ikusten duen moduan jokatzen du.

GURASOEK ALA UMEAK, NORK DU BEHAR HANDIAGOA?

Haur bakoitzaren testuingurua desberdina da: bizi den herria, auzunea, ikastetxea, familia, behar bereziak ote dituen... Faktore askok baldintzatzen du haren egunerokoa, teknologiarekin harremana tartean, baina badirudi errotutako ohitura dela seme-alabek DBH1erako jautzia ematean mugikorra erostea, ez bada urte bat edo bi lehenago. Jaunartzea egiteko usadio handiagoa dagoen lekuetan, esaterako, orduan eskuratzatzen du ume askok. Herri txikietan, bestalde, bada joera seme-alabak herri handiagoko bateko ikastetxera igarotzen direnean, 11-12 urterekin, mugikorra erosteko, “zer gerta ere”. Rosek argi du: “DBH hastean ez dute mugikorririk behar, autobusa baizik. Ikastetxetik aldatzen dute, irakasle berriak dituzte... Eta erdian telefonoa sartzen diegu. Ez da erraza hori guztia kudeatzea”.

Mugikorrak hitz egiten ari gara etengabe. Aintzat hartu behar da, ordea, hura ez izateak ez duela esan nahi umeak ez duenik teknologiarik eskura, edo ezin dezakeenik lagunekin planik egin, maiz errepikatzen

Guraso batzuek erabakia hartu zuten: umeak DBH1era mugikorrik gabe bidaltzea, eta hilabete gutxiren buruan ikustea ea ituna denbora luzeagoan mantendu zitekeen

duten argudioa izanagatik, ordenagailu eramangarriak, tabletak edota internetara sarbidea daukaten telebistak dituztelako etxean zein eskolan. Eta, ahaztu egiten zaigula dirudien arren, bada beste zerbait: egun santu guztia elkarrekin ematen dute.

Rosek azaldu digunez, umeek baino gehiago gurasoek sentitzen dute



GURE AUKERA, GUK 16

maiz beharra hari mugikorra emateko, lasaitasunaren izenean. “Aterako da ingeles akademiatik eta...”, edo “entrenamendua berandu bukatuko da...”. Hamai-ka izan daitezke arrazoiak. Elorza 14-16 urteko gazteen irakaslea da Zurriolako ikastolan, eta “kontrola” hizpide hartuta, han ikusitakoez aritu zaigu: “Ikas-leei galdetzen diet ea normala iruditzen zaion gurasoek etengabe jakin nahi izatea haiek non dauden, eta harritu egiten nau gehienek erantzutea baietz. Onarturik dute kontrola dela heziketarekin edo gurasotasunarekin lotua dagoen zerbait, eta *ostras*... Gero, euren arteko harremanetan ere normalizat dute kontrol hori, datuak partekatzea, etengabe galdetzea bestea non dagoen, erantzuten ez diotela-eta haserretzea...”. Seme-alaben autonomia, euren kabuz moldatzen irakastea, elkarren arteko konfiantza, etxea-eskola-aisia hirukoaren dantza... Ez da bideratzen erraza. Haiek ingurune digital batean jaio dira eta helduok ez. Teknologiaren erabilera kritikoa bultzatzeko denok behar dugu egokitu, esku artean daukagun tresnaren indarrak kontziente izan, unea iristen denerako ahalik eta jantzien egon nahi badugu. ●

Gure aukera, guk 16 taldeak antolatuta, mugikorren erabilaren inguruko tailerra egin zuten hainbat gurasok martxoaren 22an Zarautzen. Salbatore Mitxelenakoez gain, antzeko ekimenak abiatu dituzten herrietakoak izan ziren bertan, Usurbil, Hernani, Tolosa, Zumaia eta Azpeitikoak tartean. Plazaratutako ideiekin dekalogo bat sortu dute, “adinari egokitu eta malgua”.

1. Gurasook eredu izan behar dugu ibilbide honetan guztian.
2. Mugikorra gurasoena da, ez da opari bat. Hitzarmena idatzita jarri.
3. Erabilera aplikazioak baliatu: Salud digital, Family link...
4. Aplikazio eta sare sozialen erabilera egokia egiten lagundu (argazkiak, adin-muga...).
5. Erabilera eremuak mugatu. Mugikorrik ez familia-planetan, otorduetan, logelan, komunean, kalean, ikas-orduetan...
6. Jakinarazpenei soinua kendu.
7. Erabilera-ordutegia ezarri. Gauez mugikorrik ez eta wifia itzali.
8. Aurrez aurreko harremana bultzatu (ez erabili gurasoen whatsapp lagunekin geratzeko).
9. Guraso eta seme-alaben arteko etengabeko komunikazioa landu.
10. Mugikorra ez dadila denerako gailu izan: musika jartzeko, iratzargailu, argazki-kamera...

JACKELINE ROMERO EPIAYU

“Berdetik gutxi dute energia berriztagarriek”

Jackeline Romero Epiayu giza eskubideen defendatzaile wayúu-a da. Kolonbiarra da sortzez, La Guajira departamentukoa, Wayúu herri indigenaren gehiengoa bezala. Munduko aire-zabaleko ikatz meategi handienetakoa dago bertan kokatua, eta beronen eskutik heldu dira inguruetera hainbat natur –eta giza– eskubideren urraketa. Urraketa horiek salatzeraz eta Kolonbiako gatazka armatuak bere herrian izandako eraginak ikusaraztera bideratzen du Romerok Sütsuin Jieyuu Wayúu (Wayúu Emakumeen Indarra) mugimenduan egiten duen lana. Eginkizun horregatik heriotza mehatxuak jaso ditu. Mugarik Gabe GKEak antolatutako *Bizitza Jokoa*n kongresuan parte hartzeko Euskal Herrira egin duen bidaia baliatu dugu berarekin hitz egiteko.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

1976an, Carbocol kolonbiar enpresak eta Intercor enpresa transnazionalak sinatutako kontratuak martxan jarri zuen La Guajiran ikatza ustiatzeko plana. Urte berean jaio zen Romero, eta bertatik bertara ikusi du etxe ondoan eraiki dieten El Cerrejon ikatz meatzearen sorrera eta hedapena. Denboraren igaroarekin, meatzea beren lurretan eragiten ari zenaren kontzientzia hartu ahala, bere jarduna bideratu du El Cerrejonen praxi okerra eta eskubide urraketak salatzeraz, bizitza bera jokoan jartzeraino. Garesti ordaindu ohi baita interes ekonomikoen aurrean lurra eta herritarren bizitzak defendatzea. Global Witness erakundearen datuen arabere-

ra, Kolonbia da defendatzaileentzat herrialderik arriskutsuenetakoa; 2020an beste inon baino defendatzaile gehiago hil zituzten bertan, 65 zehazki. Tamalez, heriotzarena hartu beharreko arriskua dela diosku Romerok, arrazoi argiaren-gatik: “Berez ez nuke eskubideak erreklamatu beharrik izan beharko, estatuak baitu horiek bermatzeko derrigortasuna. Baina indigenen errealtatea bestelakoa da”.

Mugarik Gabe GKEak argitaratu duen *Bizitza Jokoa*n. Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta liburuan Jesus González Pazos egileak jasotzen duenez, El Cerrejonen iritsierarekin ga-

rapena, enpleguaren sorrera eta ustiapen arduratsua promestu zizkieten herritarrei Kolonbiako Gobernuak eta enpresa transnazionalak. Alabaina, pobretzea, desplazamenduak, kutsadura eta gaixotasunak dira oinordetzan utzi dietena egiatan. “Meategi horren eraginez Guajiran ez dago, eguzkiaz gain, distira egiten duen beste ezer, ikatzaren hauts kutsakorra dena beltzez estaltzen ari baita inguru hartan”, irakur daiteke liburuan.

Sütsuin Jieyuu Wayúu (Wayúu Emakumeen Indarra) mugimenduak urteak daramatza hori guztia salatzen, arreta berezia jarritz emakumeetan izan duen inpaktuan. Horrekin batera, beren lan lerroetako bat wayúu emakumeak trebatzea ere bada, hainbatetan urratu dizkieten eskubideak betearaztea exijitzeko gai izan daitezen. Jardun horrek eraman ditu heriotza mehatxuen jopuntu izatera.

Nola aldatu ditu El Cerrejonek La Guajira, bertako herriak eta horien bizimodua?

Meatzak esplotaziorako beharrezkoak zituen lur guztiak bereganatu ditu, eta horrek bertako komunitateen –indigenak, afroak zein nekazariak– desterritorializazioa eragin du. Enpresa heldu zenean oraindik ez zegoen indarrean Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) 169. hitzarmena, herri tribal eta indigenei aitortzen diena kontsultatuak izateko eskubidea, beren lurraldean egin asmo dituzten proiektuen aurrean. Hala bada, enpresak ez zuen kontsultarik egin, eta gobernuaren partetik ere ez zuen inolako kontrolik izan. Gerora meatzea hedatuz joan da, eta 169. hitzarmena indarrean egonik, printzipioz kontsulta eskubidea

bete behar luke; baina kontrara, ahal izan duenean enpresak araudia urratu egin du herriei kontsulta egin behar ez izateko.

La Guajirako erdialdea eta goi parte, iparralderantz eta itsasotik gertuen dagoena, eremu erdi-basamortukoa da. Meatze-eremua Ranchería ibaiak gurutzatzen du, La Guajirako ibai bakarrak; Sierra Nevadan jaio eta La Guajiran eta Karibe itsasoan isurtzen da. Ibaiaren behe eta erdialdean enpresak kutsatu egin ditu urak, eremu horretan pilatzen baita meatzearen jardunetik datorren ur toxikoa. Horrez gain, ibaiadarrak ere suntsitu ditu, ibaia are gehiago ahulduz, eta hori guztia La Guajira bezalako eremu erdi basamortukoan eta ekosistema ahulekoan. Aparte, lurra apurtu eta ikatza usiatzeko dinamita erabiltzen da egunero meatzean, eta horrek lur azpiko uraren maila geroz eta baxuagoa izatea dakar. Hala diote ikerketek ere. Eta ondorioz, ibaitik urrunen kokatutako komunitateentzat geroz eta zailagoa da lur azpiko uretara heldu ahal izatea.

Horrez gain, ehun soziala ere hautsi du, heldu bezain pronto informazio okerra sartu eta komunitatean zatiketa giroa sortzen baitute enpresek. Eta ekonomiari dagokionean, gaur egun La Guajira herrialdeko eskualde pobreenetakoa da.

Oker ez banabil, diru-sarrera gehien dituen herrialdeko bigarren ikaztegia da El Cerrejon, eta La Guajira, aldiz, Kolonbiako bigarren eskualderik txiroena.

Hala diote estatistikek. La Guajirako hiriburuan, Riohachan, langabezia maila Kolonbiako altuena da. Eta eskualdean 5.000 haur baino gehiago hil dira, oso behetik jota. Haur asko gosez eta egarritz ari da hiltzen, eta meatzea da horren erantzule nagusietako bat, baina ez bakar. Horri gehitu behar zaio utzikeria instituzionala. Gobernu arrazista eta klasista da Kolonbiakoa, eta komunitate indigenari ez digu bermatu osasuna, hezkuntza edota zerbitzu publikoetara sarbidea, horiek oinarritzko eskubideak izanik. Indigenok ere bagara eskubide-dun herritarrak.

Meatzea eraiki aurretik promestu zutenaren oso bestelako eszenatokia



MUGARIK GABE

sortu du enpresak. Zer da saldu zutena?

Heltzean, enpresak departamentua ilusioz bete zuen, garapenaren, enpleguaren eta baldintza ekonomiko hobeen ilusio faltsuaz. “Ikatzak ustiatuko da, baina baliabide asko eta inklusioa ekarriko dizkio La Guajirari”, hori zen helarazi zena.

Instituzioek ere badute beren erantzukizuna hemen, enpresaren praktikak egokiak direla bermatzeko beharra haiena baita; bermatu behar dute enpresak baldintzak betetzen dituela, eskubideak bermatzen dituela. Kolonbiako Estatuak ez du halakorik egin.

Enpresak gauzatutako eskubide urraketen erreparazioa eskatzen duzue.

Gaur artean, enpresak uko egin dio kalteak erreparatzeari. Hala egin dezan lortzea oso zaila da, badirudielako enpresek, korporazioek, jatorrizko herrialdeetan ere ez dutela beren jarduren gaineko kontrolik. El Cerrejonek, bere garaian, hiru jabe zituen: Glencore suitzarra, BHP Billiton britainiarra eta Anglo American hegoafrikarra. Horiek beren akzioak saldu eta erretiratzen joan dira, eta Glencore bilakatu da jabe bakarra, praktika okerren zerrenda luzea duen transnazionala. Testuinguru horretan, komunitateon beldurra da biharko egunean enpresa horrek ere hi-

rugarren bati saltzea bere akzioak, eta dituen erantzukizunei iskin egitea.

Meatzeak ez ditu maila berean kaltetu gizonak eta emakumeak. Hala seinatu du Wayúu Emakumeen Indarrak.

Hasteko, enpresa heldu zenean elkarrizketak soilik komunitateetako gizonekin mantendu zituen. Wayúu herriaren antolaketa soziala matrilineala da, familiaren leinua amaren bidez hartzen da oinordetzan, baina familiako autoritate figura maskulinoa izaten da: amaren aldeko osaba, amonaren seme nagusia... Kultura matxista da, eta aipatutakoa bezalako elkarrizketak abiatzen direnean, hor jatzotzen da lehen inpaktua. Emakumeak, horien hitza, ez da kontutan hartzen; emakumeei ez zaie parte hartze politikoa aitortzen.

Horrez gain, meatzeak ura ondasun urri bilakatu izanak eragin zuzena izan du bereziki neskatoen eta emakumeen bizitzetan, ur bila edo arropa garbitzera joan ohi direnak baitira. Ura lehen baino urrutiago izateak -5, 10, 15 edo 20 kilometrorat- nabarmen kaltetu ditu beren biziak.

Osasunari begira jarritz gero, meatzetik gertuen dauden komunitateetan jaso dugun informazioaren bitartez, lehen ezhohikoak ziren gaixotasunen kasu ugari identifikatu ditugu. Emakume askori

umetokiko minbizia diagnostikatu diete, bularreko minbizia ere bai. Lehen halako oso kasu gutxi egoten zen, beraz, ondorioztatu dugu emakumeen osasunean ere eragin zuzena izan duela meatzeak. Instituzioei eskatu izan diegu ikertu dezaten, baina ez dugu halakorik lortu.

Bestalde, meatzearen kedarrak eragin dako kutsadurak gurea bezalako gune hauskorretan dagoen landaredi urria ere kaltetu du, eta horrek ere era berezitan kaltetzen ditu emakumeak. Izan ere, wayúu herrian emakumeak dira medikuntza tradizionalan jarduten dutenak, eta egun sendabelarrak hazten diren eremuak kutsatuta daude.

Behin hasita, etenik gabe segi ahalko nuke meatzeak emakumeei eragindako kalteak zerrendatzen.

Zerk eraman zintuen Wayúu Emakumeen Indarrarekin bat egitera?

Uste dut egokitu zaidan zerbait dela. Ez nintzen egun batean jaiki eta honetara dedikatzea erabaki, esango nuke biziak berak eraman nauela nagoen tokira. Nire amonetako bat oso emakume aurreratua izan zen bere garaietarako, kemen ikaragarria eta harremanetarako erraztasuna zituen, eta ez zuen isiltzen uste zuena. Bere kudeaketari esker sortu zen komunitateko lehen eskola. Beraz, nire jardunak badu herentziatik zertxobait.



Meatzeak 69.000 hektarea hartzen ditu, eta horri gehitu behar zaizkio karga terminalaren 38.000 hektareak. Horrez gain, ikatza garraiatzeko 150 kilometroko trenbideak zeharkatzen du departamentua, eta eguneroko 30 milioi ur-litro inguru kontsumitzen ditu 108.000 ikatz tona ateratzeko.

Horrez gain, nire ama arduratu zen ni komunitatetik ateratzeaz, ikasketak izan nitzan. Horrek ahalbidetu zidan nire ama hizkuntzaz gain –wayuunai-ki– espainola ere menderatzea, besteak beste. Ikasketak amaitzean komunitatera itzuli eta irakasle gisa hasi nintzen lanean, eta inguruan gertatzen ari ziren hainbat kontutaz ohartzen joan nintzen. Hala hasi nintzen komunitatearen kudeaketan laguntzen. Apurka sentsibilitatea eta kritikotasuna garatu nituen zenbait konturen aurrean, meatzearekin, kasu. Gertatzen ari zena ulertzen hasi, eta ohartu nintzen komunitateak oso bakarrik zeudela meatzearen aurrean.

2000. urtean jazotako gertakari batek ere izan zuen eragina nigan. El Cerrejon enpresak beren lurrak kendu zizkion Tabaco komunitate afroari; beren lurretatik kanporatutako lehenbiziko komunitateetako izan zen, eta horretarako baliatu zituzten armada, indar publikoa, makineria... Kolpatu egin ninduen ikusteak nola kanporatzen zituzten beren lurretatik, joateko beste tokirik eskaini ere egin gabe. Sinpleki, kanporatu egin zituzten.

2008tik ari zarete mehatxuak jasotzen. Zuk zeuk heriotza mehatxuak jaso dituzu. Nor dago horien atzean?

Mugimenduak laguntza eskaintzen die meatzearen biktima diren komunitateei, eta baita Kolonbiako gatazka armatuak kaltetutakoei ere. Ondorioztatu dugu jardun horregatik jaso ditugula mehatxuak. Orain eta hemen, ezingo nuke baieztapenik egin eta “enpresa da mehatxu egiten didana” esan, ez baitaukat frogarik. Halere, mugimenduko kideok argi dugu gure jarduna dela mehatxuen arrazoia. Ekintzak gauzatu ditugu, korapilatsuak diren gaien bueltan eragin dugu; nondik etorriko dira, bada, mehatxuak?

Frogatuta dago Kolonbian paramilitarismoa beti egon dela aliatuta indar publikoekin, korporazioekin eta enpresekin. Kasu batzuetan hori frogatu izan da, César-eko meatzeetan adibidez, zeinetan sindikalistak hil dituzten eta kasua epaitua izan den. Kontua da El Cerrejonen kasuan lotura hori ez dela frogatu. Aguilas Negras-en izenean mehatxuak jaso genituenean [2020], gobernuaren eta justiziaren partetik entzun genuena izan zen halako talderik ez dela existitzen, panfletoak idaz-

ten dituzten alprojak besterik ez direla. Kolonbiako Fiskaltzak berak darabilen argumentua da hori. Baina hainbat mehatxu eta hilketa gauzatu dituzte herrialdean. Hori frogatuta dago. Nola esan dezakete existitzen ez direnik? Ondo dakite talde paramilitarrak direla.

Mehatxuen egileak identifikatzeko, judizializatzeko eta ikertzeko ezintasunak ditugu, eta ondorioz erabateko in-punitateari aurre egin beharrean aurkitzen gara. Testuinguru konplexuegia da lider sozialen segurtasuna bermatzeari dagokionez, eta estatuak, beste ezer baino gehiago, estigmatizatu egiten du horien lana.

Nola eramaten du batek hori? Nola eragin ditu mehatxuak jasotzeak?

Lehenbiziko mehatxua ez nuen zuzenean nik jaso, 15 urte betetzear zen nire alabak baizik. Niretzako mezua zen arren, bere bidez helarazi zidaten. Gibelean den logika ondokoa da: zure alderdi sentibera seme-alabak dira, beraz, hortxe joko dugu. Zentzu honetan ere, emakumeenganako mehatxuek berezitasunak izaten dituzte.

Denborarekin ikasi dut beldurrarekin elkarbizitzen, ezin baitut utzi nire bizia suntsitu dezan. Gaur soineko hau daramat soinean, bada, bihar ere kalera irtengo banaiz, aldatu egingo dut arropa. Hala ibiltzen ikasi dut. Une zailak bizi izan ditut, mehatxatzen zaituztenean ez baitzaituzte zu bakarrik mehatxatzen, eta horren ondorio izaten da familiaren presioa: “Zergatik zaude zu hor? Hil zaitzaten, eta zeure alabak hil ditzaten eragingo duzu”. Eta komunitatea berdin, beldurra nagusitzen da eta esaten dizute “aizu, ez dugu nahi zu honetan gehiago sartzerik, utz ditzagun gauzak dauden moduan”. Mehatxuak egiten dituztenek diseinatutako estrategiak dira, helburu dutenak komunitateen ahotsa isilaraztea, horien eskakizunak eta erreklamazioak ere isilarazteko.

Ez gaude heriotzaren esperoan, baina zerrenda bat latente balego bezala da. Gaur lagun bat da hil dutena, atzo beste bat hil zuten, eta bihar batek daki, beharbada zeu izan zaitezke. Horrela bizi gara. Esango nuke hori dela Kolonbiako liderrok guzti hau bizitzeko dugun modua. Oso gogorra da, eta terapia egitea dagokigu, espiritualtasunetik eta egiten dugunetik bizi, ahal deneraino. Hori da egokitu zaiguna. ●

Deskarbonizazioa

“Deskarbonazioa ez da erreala gure lurraldeentzat, ikatza ustiatzen jarraitzen baitute hemen. Hori bai, Kolonbian ez da La Guajiratik ateratzen den ikatz gramo bakarra ere kontsumitzen. Bertako matrize energetikoa hidroelektrikak dira. Ikatza kanpora ateratzen da: AEBe-tara, Europara, Asiara... Horregatik arreta ematen diegu kontsumitzaileak diren herrialdeei”.

Trantsizio... bidezkoa?

“Trantsizio energetikoaren diskurtsoa arrotza da guretzat. Horretaz hitz egiten dute gobernuek, baita erakunde ambientalistek ere, baina gurea bezalako lurraldeetan –non ustiapena gure errealtatearen parte den– trantsizioetaz hitz egitetik urruti gaude, gure galdera ondokoa baita: trantsitatu, nora? Nora trantsitatu dugu ustiaketak eragindako kalteak erreparatu ere ez baditugu egin. Jendeak ez du astirik izan trantsizioan pentsatzeko.

“Bidezko trantsizioa” entzuten dugunean, burura datorkigun lehen gauza da gobernuen trantsizio bidegabeea. Izan ere, trantsizioak gobernuetatik ari dira pentsatzen, kapitalaren interesen arabera, eta helburu bakarrarekin: baliabide naturalak komertzializatzen jarraitzea. Ez dute deus bidezkotik, ustiatuko den lurraldea eta bertako komunitateak kontutan hartzen ez badituzte. Parametro horietan ez dago ez bidezko trantsiziorik, ez ekonomia berderik”.

Energia “berdea”

“Emanak daude La Guajirako zentral eolikoei bide emateko lehen lizentziak. Ikatz meategiak eragindako kalteak ez ditugu konpondu, eta orain aldaketa klimatikoa arintzeari buruz hitz egiten duten muntstro berriei ere aurre egin behar diegu. Energia eolikoa bidezkoa, berdea dela diote. Baina berdetik gutxi dute energia berriztagarriek, ikusten ari baikara nola ari diren heltzen enpresak. Baliabideak ustiatzeko formak berriak dira, baina baldintzak iraganeko berberak: lurraldeko biztanleen proposamenei, iritziei eta parte hartzeari ez zaio lekurik egin”.

Gasteizko euskara jendeak etorkizun hobearekin izan dezan

Arabako euskaltzaleak gogoetan dira. Herrialdeko lau elkarteek antolaturik, "Eragiteko janzten" ikastaroa antolatu zuten iaz, eta bigarren edizioari lotu zaizkio urte berriarekin. Lau saio dira eta, lehenengoan, Gasteizko euskara jendearen familia-argazkia izan dute helburu.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Eragiteko janzten: Gasteizko euskaltzaleon gogoetarako une eta gu-
neak" lemapean, lau saio egitekoak
dira Arabako hiriburuan hilean behin,
maiatzera bitarte. GEU elkarteak, Laza-
rraga Kultur Elkartea, *Alea* aldizkaria eta
Arabagara-Topagunea dira antolatzaileak.

Otsailean egin den lehen saioak "Gasteizko euskara jendea. Familia-argazkia nor gonbidatu?" zuen goiburua, eta GEU elkarteak lehendakari Irati Iciar Madinabeitiak gidatu zuen. Ekimen honen berri ematera Arabagara-Topaguneko kide Oskar Garcia de Bikuña eta aipatu Irati Iciar etorri zaizkigu. Gasteizko euskara jendeaz den bezainbatean, bi solaskideen iritzira euskara jendea da hizkuntzaren egoerak kezkatuta etorkizun hobearen alde saiatzen den hura, eta askotariko talde edo batzordeetan (gurasa, langile, ikasle, aisialdi, kultura, kirola, euskara, hedabide, gazte...) elkar-tu ohi dira, eragiteko asmoz.

GASTEIZKO EUSKARAREN MAPA

Garcia de Bikuñaren hitzetan, "Gasteizko euskaltzaleak euskalgintzarako prestatzen saiatu gara, edukiz janzten, aktibatzen, eta, horretarako, oinarri teoriko eta metodologikoak landu nahi ditugu, eta Gasteizko eta Arabako zenbait esperientzia aurkeztu. Gasteizko egoera ezagutzea eta, horrekin batera, euskalgintzan diharduten eragileak ezagutzea da asmoa". Bide horixe lotu zitzaizkion iaz, Iciarrek esan digunez: "Duela ur-

tebeteko zikloan ari ginela, Gasteizko euskararen mapa egiten ahalegindu ginen, saioetan parte hartu zuten eragileekin batera. Alegia, non bizi garen, non lan egiten dugun, non eragiten dugun... mapa handi batean ezartzen saiatu ginen. Argazki bat, finean". Aurretik, egikaritu dute delako familia-argazkia, Iciarren esanetan: "Gasteizko euskal komunitateaz abstraktuki hitz egin ordez, familia-argazki horretako datuak bildu eta mapa interaktiboa sortu du Aritz Martinez de Lunak *Alea* astekarian".

“ ”

*Abstrakziorik gabe,
izen-abizenak ipini
nahi genizkion
Gasteizko euskara
jendeari*

Irati Iciar

Inkesta Soziolinguistikotik datozen datuak dira batzuk, Gasteizen egindako inkestetakoak bestetarik, Euskaraldiak eskaintzen dituenak eta, bestalde, ikastaroaren antolatzaileek eskura dauzkatenak. "Abstrakziorik gabe, izen-abizenak ipini nahi genizkion Gasteizko euskara jendeari, eta, horrela, hainbat

talde eta batzorde gonbidatu genituen familia-argazkira. Bistan da, ez gara odol-leko familia, euskarak biltzen gaituen familia baizik. Kideetako batzuk antolatuta daude, beste batzuk ez. Gure lehen nahia zen antolatuta dauden euskaltzaleak identifikatzea", esan digu Iciarrek.

FAMILIA-ARGAZKI DINAMIKOA

Gasteizko euskalgintzaren datu base bat sortu dute. Horretaz ari dira argazkia aipatzen dutelarik. Ohar egin digu GEU elkarteak lehendakari Iciarrek: "Argazki dinamikoa da, hala ere, ez da bakarrik oraingo egoera islatzen duen argazkia, ez dira bakarrik euskara elkarteak izendatzen, euskararentzako etorkizun hobearekin nahi duten euskara jendeak baizik: ehunka talde ari dira horretan". Eta, oroz lehen, argazki dinamiko eta mapa interaktibo hori tresna baliagarriak gerta daitezkeen ari dira lanean. Iciarrek: "Eman dezagun gurasa elkarte batek euskaraz dakien entrenatzaile bat nahi duela seme-alabek kirola euskaraz egin dezaten. Gurasa elkarte askoren lehen helburua ez da euskara, baina euskarazko premiak ere izaten dituzte eta horregatik, haiek ere bildu nahi izan ditugu gure familia-argazkira. Euskararen familia zabala eta dinamikoa da, baliteke delako gurasa elkarte horretan sentsibiltateak ere aldatzea, gurasoekin batera, eta ezinbestean, argazkiak dinamikoak izan behar du, gainerakoan euskara eta kultur elkarteetara mugaturik geldituko ginateke".



Garcia de Bikuñaren iritziko, familia-argazkia eginagatik ere, euskararen egoeraren kezkatzen etorkizun hobe baten alde ahaleginetan ari diren guztiak biltzeko asmoarekin ari dira, "argazkia elkarrekin sortzeko, eta aurrerantzean ere argazkia elikatzeke, beti ari baitira han eta hemen talde eta elkarte berriak sortzen. Edozein entitate, euskararen alde urratsak ematen hasten den heinean, argazki horretako partaide da".

Iciarren aburuz, "gu geurekin eta geuretzat" gabiltzan sentsazioa dugu askotan. Hortik urrunago nahi genuen, eta Gasteizen bere burua euskaldun ikusten duen hori, aktibatuta ez dagoena, euskara sentitzen ez duena, erakarri". Diote-nez, euskaldun guztiak ez dira, nahitaez, euskaltzale, baina hala izanik ere, tokia dute delako familia-argazkian. Euskaraldia garaian auzoetan sortutako auzo

batzordeak, euskara taldeak, guraso elkarrekin, euskararen alde ari diren gazte taldeak... "Gurea ez da gauza bat itxia. Lehenik, ahal zen jende gehiena bildu, eta direktorio bat osatu nahi genuen -baina direktorio dinamikoak, altak eta bajak kudeatuz-, eta bigarren, erabilgarri gerta dadin nahi dugu, euskalgintzan ari den edonork erabil dezan, ez bakarrik ekimenaren antolatzaileok", Iciarrek. Gisa berean ari da Garcia de Bikuña: "Osatzeko ari garen datu basea gizarteratzea, guztien esku uztea lortuz gero, helburua lortuko genuke. Betiere elkarlana piztea dugu xede, komunitatea kohesionatzea. Euskaltzaleak asko gara Gasteizen, edozein talde edo entitatetan gaude, baina ez gara kontziente. Guztiok elkar ezagutzea nahi genuen". Eta Iciarrek: "Gure erronka da egin dugun pertsonen arteko lotura hori, sare sozial hori, modu

erabilgarrian osatzea. Ez du balio guraso elkarte batek entrenatzaile euskalduna behar izatea eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzeko, eta Google-ra jo behar izatea. Ez al da errazago, eta egokiago, familian bertan galdetzea?".

Gaztelaniazko ozeanoaren erdian, euskaldunok bisualizatzea ere bada gako. Iciarren hitzetan, "nola bisualizatzen dugun bata bestea? Gune euskaldunetara joanez. Oihaneder Euskararen Etxera joaten garen guztiok euskaldunak gara. Aktibatuta nahiz ez aktibatuta, euskaldunak. Hara ez goaz bakarrik kontsumitzera, hura proiektu handi baten barruan dago, eta aktibatuta dago. Horixe da 'eragiteko jantzen': aktibatuta ez dagoen horri kontzientzia piztea". Arabako eta Gasteizko euskaldunek ezinbestekoa baitute elkar ezagutzea, elkar laguntzeko. ●

BABESLETA:



Goien

“Argindarraren merkatutik geroz eta dependentzia gutxiago izan, hobe”

Ukrainako gerrak garestitu omen du gure etxeetako argindarra, hedabideen arabera. Baina Leire Astigarraga eta Jokin Castaños Goienerreko langileek azaldu digute betidanik prezioen espekulazioa dela nagusi argindarraren “merkatu marjinal” edo bitxian, eta iragan ekainean 180 eurotik 3.000raino igo dela argindarraren gehieneko prezioaren sabaia Espainiako Estatuan.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Enkante batean finkatzen da argindarraren prezioa” azaldu du Jokin Castañosek, “baina merkatu arrunt baten guztiz kontrakoa gertatzen da argindarraren merkatuan: tomaterik eskasena dira merkeenak azoka arruntean, baina argindarraren kasuan edo eskaintzarik garestiena ordaintzen duzu edo argi esaldurarik gabe geratzen zara”. Argindarrarena “merkatu marjinalista” izateak egiten du “anormal”, Leire Astigarragak azaldu duenez: “Argindarraren merkatuan eskaria eta ekoizpena uneoro bat etorri behar dira, hau da, orduro dagoen eskaria asetzeko ekoizleek beren eskaintzak egingo dituzte. Baina dagoen eskaintzarik garestienak markatuko du azken prezioa. Enkantean, eskaintzak merkeenetik hasten dira: energia nuklearrak eta energia berriztagarri ez kudeagarriek egiten dute lehen eskaintza. Energia nuklearrak bere eskaintza oso merke egingo du, batetik, euren produktio kostuak baxuak direlako eta bestetik, zentral nuklearrak ezin direlako abiatu eta geratu momentuoro, beraz, interesatzen zaie euren energia guztia saltzea, eskaintza merkeak eginez.

Hortik aurrerako teknologia joango dira ekoizpen eskaintzaren prezioak igotzen eta azkena sartuko dena da ga-

restiena. Baina azkena sartu den teknologiaren prezio hori da denentzat ezartzen dena, beraz, eskaintzarik merkeena egin duten horiek ere, garestienaren prezioan salduko dute. Horri deitzen zaio “zerutik etorritako irabaziak”.

Goienerreko kideek azaldu dute gas ziklo konbinatua dela argindarraren merkatuan prezio altuena markatu ohi duen teknologia, “eta beraz, gasaren prezioa gora doan heinean, ziklo konbinatuko elektrizitatearen prezioa gora doa”. Gas ziklo konbinatukoak dira, besteak beste, erraustegiak: “Gasarekin pizten delako zaramak erretzeko labea eta zarama ez denez oso erragai ona, gasa eta zarama erretzen dutelako” (hortik “ziklo konbinatu” hitza), Castañosek oroitarazi duenez.

Astigarragak argindarraren merkatuko espekulazioaren datu hau eman du: “Enkantea kudeatzen duen OMIEk (Operador del Mercado Iberico Español) hilero ateratzen du txosten bat, agertzen duena eguneko ordu bakoitzean zein teknologia izan den prezioa markatu duena. Prezioak oso altuak izan diren azken hilabete hauetan, bitxia da ikustea ordu gehienetan teknologia hidraulikoa izan dela prezioa markatu duena. Beraz, hor espekulazio handia dago. Izan ere, hidraulika handiek eta gas ziklo konbi-

natukoek jabe berberak dituzte, beraz, badakite noiz izango den aski ur eskaria asetzeko, eta prezioak ez jaistea lortzen dute, berez, gaitasuna dutenean prezioa jaisteko eguneko ordu askotan”.

Castañosek salatu duenez, “horregatik hustu zituzten urtegiak udan, energia garesti zegoelako, eta urarekin energia ekoizteko baliatu zuten. Eguerdiko 12:00etan ixten da enkantean hurrengo eguneko argindarraren prezioa. Baldin badakizu hurrengo egunean 500 euroan egongo dela megawattioa, pantanoak zabaltzen dituzu eta prezio horretan ekoizten duzu. Horrela, ez duzu gasik erretzen, zure eskariari kobertura emango diolako urak, eta bistan denez, askoz irabazi gehiago izango dituzu. Urak zer balio du? Ura denona da eta uraren lehenbiziko funtzioa pertsonen kontsumitu ahal izatea da. Baina inoizko negurik lehorrena izan dugun honetan, ura gastatu dute energia ekoizten. Horrek ez dauka ez hanka ez buru, baina hala egin zuten”.

Argindarraren prezioaren igoeran eragin handiagoa du espekulazioak gasaren prezio igoerak baino?

JOKIN CASTAÑOS: Ekainean argindarraren enkante horretako prezioaren sabaia igo egin zuten. Lehen ezin zen

prezioa 180,6 euro/wattio baino garestiagoa izan, eta egun 3.000 euroan dago sabai hori. Atea zabalik utzi dute merkatua erabat desitxuratzeko. Horregatik ikusi dugu, irailetik hona gehienbat, lehen 200 eurokoa zen muga hori soberra gaindituta, 700 euroraino iritsi gara duela aste batzuk, ordu batzuetan.

Hau eginda, Goiener bezalako merkaturatzaile txikiak merkatutik botatzeko aukera dute. Izan ere, bost enpresa handi horiek, merkaturatzaileak izateaz gain, ekoizleak ere badira, beraz, eurentzako behar duten energia guztia sortzen dute eta adibidez 160 euroko prezioa jartzen diote beraien bezeroentzako energiari; aldiz, beren soberakin guztia merkatuan 700 euroan jartzen dute salgai. Horrela, sorkuntza gutxi daukagun merkaturatzaile txikiok behartuta gaude 700 euroan erostera. Horrela ezin dugu konpetitu.

Baina etxeko argindarra enpresa handi batekin kontratatuta duen herritarrari ere asko garestitu zaio tarifa...

J. CASTAÑOS: Bai, bost enpresa handi horiek euren kontsumitzaile handiei, alegia industriari, bermatzen diete argindarra prezio merkeagoan. Kontsumitzaile txikia berdin zaie. Erabat prezio

desberdinak dituzte industriarentzat eta herritarrentzat.

Ukrainako gerra dela-eta gasa garestitu dela errepikatzen digute. Zer datorkizue burura?

J. CASTAÑOS: Egon seguru 50 euroan erosi zuten gas hori bera 700 euroan saldu dutela. Egun, gasa 200 euro inguruan dago eta egun erretzen ari diren gasa bere garaian 50 euroan erosi eta deposituetan zutena da. Hor bai dagoe-la gehiegizko irabazia: prezioa *on-line* eguneratzen dute baina gasa ez dute *on-line* erretzen.

Nire ustea adieraziko dut, Goienerren ez baitugu gai hau adostu. Oso tranposoa izaten ari da gaia, guda hotzaren garaietara itzuli nahian, Errusia maltzurtzat hartzeko. Baina benetan hirugarren gerra mundiala teknologikoa eta digitala izaten ari da. 2021eko ekainean argindarraren merkatuaren prezioaren sabaia 180 eurotik 3.000 eurora igo zutenean, bazekiten zerbait batzuek. Ukrainako gerrarekin despistatu gaituzte baina inor ez da gogoratzen ekaineko neurri horretaz.

Herritarrok eros ahalmena galtzen ari gara. Zer interes egon daitezke horretarako?

J. CASTAÑOS: Argi dago erregai fosilen azkenetan gaudela. Eta botere kontua da: nork bereganatzen duen erregai fosilen ekoizpen handiena. Hau geoesstrategian eta geopolitikan kokatzen da. Errusia zigortzea bezalako interesak daude atzean, baina bitartean zigortuak gu gara, dena garestitzen zaigulako. Uste dut estrategia komunikatibo baten parte ere izan daitekeela. Prezio igoeren atzean dagoena estrategia geopolitiko bat da.

Espainiako Gobernuak iragarri dituen neurriak eraginkorrak iruditzen zaizkizue?

J. CASTAÑOS: Trantsizio Ekologikoko ministroa den Teresa Riberak hala esan du: "Apiriletik aurrera gasa desakoplatuko dugu merkatu elektrikitik". Baina horrek zertarako balio du? Otsailean ibili gara-eta 700 euro ordaintzen hidraulikoarekin! Jaitsi dezatela gehieneko prezioaren sabaia berriz! Egia da bai Europako eta bai Espainiako politikariek esan izanak gasa desakoplatuko dutela argindarraren merkatutik, horrek ekarri duela prezioa jaitea. Izan ere, lehen aipatu ditugun "zerutik etorritako irabaziek" isun batzuk ekar ditzakete, abusuagatik, prezio altuegia eduki duzulako zure teknologiak hori behar ez duenean:



Goienerren Batzar Orokorra, 2019an.

baina isunak gehienez 60.000 eurokoak dira, barregarriak, argindarraren prezioa gehiegi igota dituzten irabaziekin alderatuta. Prezioen abusu hori etengabe egiten da, baina 180 euroko sabaia zegoenean oharkabeago pasatzen zen, eta orain oso nabarmena da.

L. ASTIGARRAGA: Urrian argindarraren prezioa asko igo zenean, Espainiako Gobernuak esan zuen "zerutik etorritako irabazien" gaia erregulatuko zuela, eta elektrika handiek erantzun zioten eskua sartzen bazuten zentral nuklearrak gelditu egingo zituztela. Beraz, ez dakit Gobernuak noraino duen gaitasuna gauzak egiteko, kate motzean lotuta daude.

J. CASTAÑOS: Beste gai bat da, CO₂-aren kargua. Iaz arte CO₂ak ez zuen ia eraginik argindarraren prezioan, baina orain bai.

L. ASTIGARRAGA: CO₂ isurtzen duen zentral orok du isun moduko bat isurtzen duen CO₂ tonako. Duela urtebete 20 euro inguru zen CO₂ tonako eta egun ia 80 euro dira. Beraz, ziklo konbinatuak (gasa errez energia sortzen duenak) CO₂ isurketen kargua ordaindu behar du eta horrek dakar haien eskaintza garestiagoa izatea.

J. CASTAÑOS: CO₂a isurtzea "zigortzen" da, baina kostu hori energiaren prezioan sartzen digute, beraz, nork pagatzen du CO₂ isurketa? Berez sortzaileak ordaindu beharko luke, irabazi gutxiago izanaz. Baina kontrakoa gertatzen da.

Honek denak nola eragiten dio Goienerri?

J. CASTAÑOS: Argindarraren merkatuan beti aurreratu behar dugu dirua: Goienerrek gaur esan behar du hurrengo astean zenbat argindar beharko duen, eta momentuko prezioaren arabera, %100eko bermea ordaindu behar du. Beraz, zazpi egunean kontsumituko dugun energiaren dirua aurreratu behar dugu, eta hamaikagarren egunean itzultzen digute erositakoa baino gutxiago kontsumitu badugu.

180 euroko prezio sabaia zegoenean tesorerian edo altxortegian oso ongi gindoazen. Orain ere Goienerren emaitzetan ongi goaz, par egiten dugu eta irabazi asmorik gabekoak garenez, ongi. Baina eguneroko altxortegia oso estresatuta dugu. Horregatik egin genuen urrian kapital sozialera borondatezko ekarpen bat egiteko deia. Eta martxoak 22an batzar nagusi berezi bat egin genuen, altxortegia malgutzeko erabili ditzakegun beste erramintak adosteko [Ikus ondoko koadroa].

Egoera honek beste motibo bat gehiago ematen digu herritarroiei energia burujabetza bultzatzeko?

J. CASTAÑOS: Uste dugu horrelako momentuetan Goienerren ereduak indarra irabazten duela. Energia berrietagarren komunitateetan lanean ari gara: Hernanin eta beste hainbat udaletan dagoeneko 14 proiektu ditugu. Energia berrietagarren komunitate hauek kooperatiba txiki gisa sortzen dira, eta herrietan energia sortu eta zerbitzua eman dezakete.

L. ASTIGARRAGA: Herritarrok zer egin behar dugun? Energia burujabetzarantz ematen den pauso bakoitza izango da herritarren alde. Argindarraren merkatutik geroz eta dependentzia gutxiago izanda, gure argindarra kudeatzeko gaitasuna izango dugu, eta hobe izango da. Eta nola ez, argindarraren kontsumoa murriztu behar dugu, bai ala bai.

Goienerrek energia gehiago ekoizteko akuilu izan daiteke egoera?

J. CASTAÑOS: Aurrera begira bi estrategia markatu ditugu: bata da gure ekoizpen unitateak handitzea, horretarako sortuntza proiektu berriak martxan jarritz edo lehendik existitzen diren zentral hidroelektrikoak (Hernaniko Fagollaga bezalakoak) eskuratuta. Eta beste ildoak da ekoizleekin aldebiko akordioak lortzea.

Zer da ekoizleekin aldebiko akordioa?

J. CASTAÑOS: Goiener merkatuko agentea da erabat. Hau da, lizentzia dugu energia erosi eta saltzeko. Batetik, gure bazkideentzako energia erosten dugu, gure bazkideen etxeetara argia eramateko; eta bestetik, energia ekoizle diren Goienerreko bazkideei, sortzen duten energia merkatuan saltzen diegu. Tratanteak gara. Argindarraren sektorean, "errepresentante" figura da gurea. Izan ere, ekoizle batek ezin du zuzenean argindarraren merkatuan energia saldu, beti behar du bitartekari bat, eta Goienerrek bitartekaritza hori egin dezake.

Helburu nagusia gure energia ekoiztea da eta ekoizteko aukerarik ez badugu, ekoizlearen energia Goienerrentzako propio erostea, merkatutik pasatu gabe: zuzenean ekoizlearengana jo, eta bitariko akordioa eginda. Hau da, ekoizlearen eta Goienerren artean adosten dugu prezio bat adibidez urte osorako, merkatutik geroz eta dependentzia gutxiago izateko.

Momentuz ez dugunez gaitasun ekonomikorik eskaera guztiari Goienerrek sortutako energiarekin erantzuteko, sortzaileekiko aldebiko akordioak lortzea da egungo estrategia. ●

Zer neurri adostu ditu Goienerrek argindarraren igoerak eragin dion arazoa gainditzeko?

Bere bazkideei energia berrietagarren bidez argindarra eskaintzen dien Goiener kooperatibak Aparteko Batzar Orokorra egin zuen martxoaren 22an, "argindarraren merkatuan izan den igoera izugarriak kooperatiban eragin duen krisi finantzarioa dela-eta". 50 bazkide inguruk aurrez aurre hartu zuen parte batzarrean, eta beste ia 400 bazkidek modu telematikoa.

Ondorengo puntuak bozkatu eta onartu ziren:

1) Kapital Soziala handitzeko ekarpen berri bat baimentzea, bazkide kontsumitzaile guztientzat derrigorrezkoa izango dena eta gehienez ere 100 euroko balioa izango duena. 359 bazkidek bozkatu zuten alde eta 28k aurka.

2) Etorkizuneko fakturak aurrez igortzeko aukera izatea, diruzaintzako uneen uneko beharrei erantzuteko tresna gisa erabiliz. 371 bazkidek bozkatu zuten alde eta 14k aurka.

3) COOP57 eta ACENEL elkarteetara atxikitzea. 368k bozkatu zuten alde eta 5ek aurka.

Goienerrek bazkideei bidalitako gutunean azaldu duenez, "Batzarrean proposatutako neurriak aho-batez onartzeak ez du esan nahi egun batetik bestera ezarriko direnik. Egoeraren arabera erabakiko da zein ezarri eta zein baldintzekin, uneoro bazkide bakoitzaren egoera kontuan hartu eta informazio gardena helaraziz".

EGUTEGIA 2022



Efemerideak irakurri... edo entzun

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

ARGIAren egutegiko efemerideek badute formatu berri bat. Dagoneko ezagutzen dugu paperekoa, duela gutxi jarri da martxan interneteko kanala, eta 2022a hastearekin batera jakin genuen Youtuben ere hasia zela bateren bat egunean eguneko efemeridea zintzilikatzen. Maider Ansa Zugarramurdi aranoarra ari da lan horretan, bere kasa, eta galdetu diogu nola heldu zion zeregin horri.

"Lokuzio ikastaro bat egiten hasi nintzen eta grabazio aparatutxo bat erosi nuen. Probak egiteko testu labur batzuk nahi nituen eta urtea hasi zenean, gehiago pentsatu gabe, egutegiko efemerideak irakurri, grabatu eta interneten elkarbanatzen hasi nintzen", horra bere erantzuna. Efemerideak badute formatu berri bat, irratsaio bateko atal moduan entzuteko modukoa dena, eta badute erabilera berri bat ere. Jakinekoea zen etxean egunero orrialdea pasa eta atzealdea irakurtzen dutenak ez direla gutxi. Kitz Mendiola Lapuebla de Labarkako irakaslearen kontakizuna ere bildu genuen orain urtebete inguru esanaz ikasleekin Historia Garaikideko klaseak emateko baliatzen duela egutegiko materiala, eta orain badakigu lokuzio ikastaro baten praktikak egi-

teko ere balio dezaketela historiako dosi txiki hauek.

Ansak ikasketa pertsonalerako erabiltzen ditu efemerideak. Urte hasieratik bere egunerokoaren parte bilakatu diren grabaketa hauen zabalpena egiteko ez du asmo handirik izan eta "lotsa puntu bat" ematen diola aitortu digu, "ez bainaiz oso iaioa gauza hauetan". Dena den, badu bere publiko txikia. Hasteko, lagunak. Zer ginateke haiek gabe! Baina tartean badira jarraitzaile batzuk ere, arazo teknikoren bat izan duenean abisua pasa edo bestelako aipamenen bat egin diotenak.

Gaitegi zabala dute eguneroko pilula hauek eta galdetu diogu ea zer duen gustuko. Lokuzioa du entsegu helburu eta umore pixka batekin azpimarratu digu beste hizkuntzetan idatzita dauden leku, pertsona edo elkarten izenak ahoskatzeko "komerik" izaten dituela batzuetan. "Nire buruaz barrez aritzen naiz, grazia egiten baitit ni modu horretan entzuteak, baina nola edo hala irakurri eta aurrera egiten dut".

Ez dakit egutegirako efemerideen formula asmatu zuenak sekula pentsatu ote zuen testu hauen erabilera honetan. Baina batzuei praktikatzeko eta beste batzuei entzuteko balio badie, aurrera. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"ARGIAren proiektuarekin bat natorrelako, euskaraz gehiago irakurri behar dudalako eta aspalditik egin gura nuen gauza bat zelako"

Gernikako Ander

"Artikuluak, elkarrizketak eta abar irakurtzen ditut sarean, eta lan hori saritzeko"

Lezoko Ander



"Ez naiz kolonialista baina..."

Axier Lopez ARGIAko kazetariak hitzaldia eskaini zuen Hernanin, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrena oinarri hartuta. Pello Zubiriak egin zituen aurkezpen lanak. Esklabista eta kolonizatzaileen monumentu nahiz kaleekin Euskal Herrian eta munduko beste toki batzuetan egin izan dena kontatzeaz gain, Lopezek Elkanoren irudiaren harira sortu diren diskurtsoak aztertu zituen, horren inguruan hausnarketa eta eztabaida sustatu asmoz.

TXERTAKA EDO TXERTATUA?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Neguko txertaketa garaia badoa. Adar-mentua egiten da orain. Uda partean begi-mentua egingo dugu, baina orain adar zati bat erabiltzen da mentu gisa. Txertatu edo mentatu gabeko landareari jarriko zaio mentua izango den muskila, ugaltu nahi dugun landarearen adar zatia.

Etorkizuneko landarearen oina izango den mentu oin horri era askotara esaten zaio: txertaka, txertakin, edadega, sestraka, mentatzeke, basaka, basate, basatar, basati, makatza eta abar. Zenbaitek edadega gaztainondoarenari (*Castanea sativa*) beste inori ez dio esaten. Gereziondoarenari (*Prunus avium*) momor.

Mentu oinak gerora arbola zenbaterainokoa egingo den hagintzen du. Baita txertoak ere. Txertoa zein altueran eginga dagoen, oinaren eta mentatutakoaren artean sortuko den bikote bakar horren tamaina baldintzatuko du horrek. Zenbat eta beherago txertatu, orduan eta handiagoa izango da arbola. Tamainan eragin handia dute, baita ere, oinaren eta mentuaren arteko kidetasunak eta ahaidetasunak. Genetikoki zenbat eta hurbilagoak izan, izerdi trukeak orduan eta errazagoak izango dira txertoan barrena, eta arbola handiagoa egiteko aukera gehiago.

Txertatzen den mentua gero uzta kendu nahi diogun barietatea izango da. Barie-



Sagar txertoa.

tate horiei jagon eta eusteko aukera bakarra da txertoa. Txertaketarik ezean galdu egingo lirakeke. Hazitik sortzen dena beti desberdina baita; inoiz ez baititu amaren edota aitaren ezaugarriak %100 berberak izaten. Txertoaren kulturak izakeraren kulturari eusten dio, jaten eta edaten dugunari lotuta. Honelaxe esan zuen Mattin Treku "Mattin" ahezta bertsolari iaioak: "Basate xerto elgarri lotuz / egiten baita

arbola, / gure mundu hau hasiz geroztik / publatu izan da hola".

Basatea eta xertoa edo mentu oina eta mentua lotzeko, ondo itsatsi eta bikoteak etorkizun oparoa izateko, mastika jartzen da; sortutako zauria babestu eta ahalik eta azkarren orbaintzen laguntzen du. Euskaltzaindiaren hiztegiak ederki asko definitzen du mastika: plastikotasun handiko ore itsaskorra, zuloak, zirrituak edo pitzadurak betetzeko erabiltzen dena eta ezarri ondoren gogortzen dena. Aurrez prestatutakoak ere saltzen dira, baina ia txertatzaile guztiek berea egitea nahiago izaten dute. Erretxin kilo bat, gantz edo bilgor kilo erdi, laurden bat argizari edo parafina, eta litro laurden alkohol behar da azkena iritsi zaidan formularako. Gure etxeko sagastian Oiartzungo Artamugarriko Oihane erabilitakoa berriz: kilo bat erretxin, 800 gramo argizari eta 250 gramo bilgor nahastuta egindakoa zen. Hutsik egin gabe denak itsatsi ziren. Lege zaharreko ukendua egiten duenik ere bada oraindik: behi simaurra eta buztina oinarri, batzuetan lastoa edo belar ondura erantsita.

Txertoa itsatsita basatia denak barietate landua emango du, zuhaitza arbola bihurtuko da. Arantzadun zakarra, leun otzan. Aspaldikoa da gure kuadrillan zakar samar aritzen denari "hi txertatuta al hago?" galdetzea. ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi

Babesleak:



OZTIBARREKO SABAIA

130 FAMILIA HURBILEKO ETA SASOIKO PRODUKTU JASANGARRIZ HORNITZEN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Epizeria parte-hartzaile bezala definitzen dute Oztibarreko Sabaia bul-tzatzaileek, baina praktikan, ohiko epizeria edo denda izatetik urrun dago Larzabalgo gunea. "Guk ez dugu inolako irabazirik ateratzen bertatik, eta langilerik ere ez dugu. Kolektiboan egiten ditugun erosketak edukitzeko eta banatzeko gunea da, azkenean", azaldu du Ainize Madariaga Muthular proiektuko kideak. Duela hamar bat urte Ikastolako zenbait guraso eta adiskide hurbileko baserrietako produktuak eskuratzen eta haien artean banaketak egiten hasi ziren, modu natural eta informalean. Urte batzuk geroago, antzeko egitasmoaren ideiarekin bueltaka zebilen Evelyne Mainhaguietekin elkartu eta proiektua egonkortu zuten. 2018a zen, eta Oztibarreko Sabaia jaioa zen.

GUNE PROPIO BATEN BEHARRA

"Baserri inguru honetan mozkina oso sanoz inguratuak geundela baina horiek eskuratzeko askotan supermerkatuetara jotzen genuela ikusten genuen, eta emeki-emeki, ekoizleekin zuzeneko harremanetan hasi ginen", dio Madariagak. Hurbileko ekoizleen produktuez gain, urrunagoko zenbait ere eskuratzen zituzten: dilistak eta lekaleak Nafarroatik, zitrikoak Herrialde



Katalanetatik... eta banaketa etxeetara zuzenean edo Herriko Etxeak utzitako lokal-letan egiten zuten. "Proiektua sendotzen ari zen, baina iritsi zen lokal baten beharra sentitu genuen momentua". 2018an eman zuten pauso kualitatibo garrantzitsu hori, Larzabalgo lokal bat alokatuz.

"Produktuak bertan uzteko aukera zabaldu zen orduan, eta jendeak etxera eramateko eskatutakoaz gain, gehiago ere ekarri genezakeen, stock txiki bat bertan izateko", dio kideak. 130 familia epizeria parte-hartzaileko bazkide dira honezkero; kopuru ederra, Oztibarre bezalako eskualde txiki batentzat. Banaketak ostegunetan egiten dituzte -asteen behin barazki eta jaki freskoena eta hamabostero banaketa 'potoloa', bestelako produktuena-, eta larunbatetan, berriz, txanda bidez gunea

ireki eta bazkideek falta dituzten produktuak bertatik eskura ditzakete.

KONTSUMITZAILEEN ETA EKOIZLEEN ELKARTEA

Hasierako urteetan kontsumitzaile elkarte moduan funtzionatzen bazuten ere, azken urteotan ekoizleak batu dira elkartera. "Haien produktuak proposatzen ditugu hemen, eta haiek ere ez dotoz printzipio komertzial huts batekin", azaldu du. Hurbiltasun hori dela eta, produktuak filosofia jakin batekin ekoiztiak direla bermatzen dute proiektuko kideek: hurbilekoak eta sasoiakoak izateaz gain, ekologikoari ere garrantzia ematen diote, zigilutik harago. "Ez gara frantses burokrazia estu horretan sartzen, gehiago da konfiantzazko giroa egitea, eta jakitea kalitatezko mozkinak ekartzen dituztela, gure filosofiarekin bat eginez", gehitu du.

Eskaintzaz gain, bestelako ekimenak ere antolatzen dituzte elkartetik, tailerrak, ikastaroak, eta azokak, adibidez. Orain, epe ertainera begirako erronkaren bat ere badute esku artean: eskualdeko ekoizle bakoitza kostaldera banaketa egitera bere aldetik joan beharrean, hozkailudun garraio bat eskuratzeko asmoa dute, banaketa kolektiboki egiteko. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Udaberria
hemen da!

Sasoiko landareak eta zure txoko kutunenak kolorez betetzeko beharrezko guztia Endanean daukazu.

Online denda



Iñaki Imazen
Alimentación, lencería, bazar erakusketa

SUPERMERKATUAREN POETIKAZ

Bilboko erdigunean etxarte baten bila nabil. San Mames Zumarkaleko 11. zenbakian kale-kantoi urdinxka bat omen dago, eta, bertan, ezohiko arte-galeria bat. Galdu samar nabil bi dendaren artean hondo urdinean *El Callejon Zollo. Molcris* idatzita ikusi dudana arte. Pasadizoa igaro eta aldapan beheara noa kale estu eta sakonean barrena, alde batera eta bestera urdinez margotutako etxabeak aurkitzen ditut. Gezurra dirudi hau Bilbo denik. Leiho-ate bi ikusten ditut, kaktus luzexka bat, zintzilik erortzen den landare zukutsua, eta horien erdian urre koloreko lau hizki handi: A I R E. Aire galerian burua sartu orduko antzeman ditut Iñaki Imazen margolanak.

 JONE ALAITZ URIARTE  AIRE GALERIA

Pentsatu dudana lehenengo gauza izan da Iñaki Imazen (Donostia, 1965) azken lanak ikusteko ezin litekeela toki aproposagorik egon. Alde batetik, galeriaren kokalekuak, Bilboko erdigune zaratsu eta komertzial honetan, erakusketaren izenburuarekin erabat bat egiten du: *Alimentación, lencería, bazar* [Elikadura, lentzeria, bazarra]. Bestetik, Aire galeria bitxia da: gainontzeko galeria komertzialen asmoetatik urrunduta lan

egiten du, eta Bilboko Arte Ederretako Fakultateko ikasle eta irakasle askoren topagunea da, beraz, Imazen lana hemen erakusteak zentzu handia du. Imaz pintorea da, baita irakaslea ere EHUKo Arte Ederretako Fakultatean. Hamarkadak daramatza bere margolanak han eta hemen erakusten, gehienbat Euskal Herrian, eta bai bere egiteko erak, bai pintura ulertzeko moduak, belaunaldi askorentzako maisu bilakatu dute.

Imaz 80ko hamarkada bukaeratik

ari da aktiboki lanean, batez ere pinturan, nahiz eta hiru dimentsioko piezak ere egin dituen. Artelekuko testuinguru artistikoaren parte aktiboa izan zen 90eko hamarkadaren bueltan non, besteak beste, 2005. urtean *Lupa eta imana. Arte-jarduna pinturaren esperientziatik lantzeko tailerra* zuzendu zuen. Artelekuk argitaratzen zuen *Zehar* aldizkarian maiz atera dira bere ekarpenak argitaraturik, horietako asko erakusketen kritikak eta pinturari buruzkoak dira. Gurean bere lana ikusi ahal izan da CarrerasMúsica galerian, Bilboko Alhondegian, Alegria galerian, baita Donostiako Tabakalerak 2016. urtean antolatu zuen *Arenzana, Imaz, Intxausti, Montón, Peral* erakusketan ere. Erakusketa hartan, belaunaldi bereko bost artista horien 80ko eta 90eko hamarkadako lanak ekoizpen berriei batera ikusteko aukera egon zen, eta beraz, artista horien lanen bilakaeran atentzioa jartzeko abagunea izan zen. Imazen pintura itxuraz abstraktua da eta kutsu ironikoa du, eta esango nuke bere estiloa dagoeneko ezaguteraza dela, eta testuinguruko hainbat artistarengan marka utzi duela.

Aire galerian batik bat pintura erakusketak antolatzen dituzte eta horietako askok talde-erakusketa formatua daukate. Fito Ramírez-Escuderok 2018.



urtean zabaldu zuen Aire, unibertsitateko ikasleei beren lanak erakusteko espazioa ahalbidetuz. Ramírez, artista eta irakaslea, aspalditik dago Arte Ederretako Fakultateari lotuta eta orain lau urtetatik, bere ikasle direnek, izandakoek eta unibertsitateko hainbat irakaslek bere lanak erakusteko aukera daukate galeria honetan. Agian Aire galeriako gauza interesgarrienetako bat da belau-naldien arteko harremanak oso modu naturalean ematen direla, eta artearen praktika hizpide, ezagutzak, proiektuak eta kolaborazioak elkartrukatzeko direla. Xarma handiko tokia da, espazioa bera informala delako, baita artista askorentzako lehen erakusketak egiteko saiakeralekua delako ere. Eta artista gazteen lana modu desinteresatuan erakustea eta bultzatzea ahalbidetzen dituzten ekimenak beti dira ongiatorriak.

Imazen pintura
itxuraz abstraktua
da eta kutsu
ironikoa du, eta
esango nuke bere
estiloa dagoeneko
ezaguterraza dela

Zolloko kale-kantoiak liluraturik sartu naiz Imazen erakusketa ikustera. Espazioak, beti bezala, asko baldintzatzen du ikusiko duzunaren esperientzia eta oraingo honetan kuriositate handiz ibili naiz espazio txikian barrena. Galeriak etxe edo lokal bateko planta du, zoko ugari du han eta hemen eta korridorea da gelatxo horiek lotzen dituen zilborhestea. Imazen mihise koloretsuek galeriako horma grisak kolorez zipriztintzen dituzte eta egin dudana lehen paseo azkarrean kolore horia nabarmentzen zela iruditu zait. Ia mihise guztiek dute ñabardura horiren bat. Sarrerako sofara bi neska daude beraien artean hitz egiten, klasean aurkeztu behar duten proiektu baten inguruan berbetan. Beraingana hurbildu naiz eta katalogo bat emateare-



kin batera esan didate BM supermerkatuetan inspiratutako margolanak direla. Hara kolore hori sutsuaren zergatia!

Beraz, asteko erosketa egitea bezain ekintza *berez-ez-transzendentala* izan liteke, kasu honetan, mihise hauek margotzen hasteko abiapuntua. Motibo hori aintzakotzat hartuta, Imazek elikagai-denda horien logoaren koloreak errepikatu, konbinatu eta aldatu egin ditu tamaina handiko mihiseetan.

Koadro bakoitza mundu bat da eta ariketa iradokitzailea da bakoitzaren parean jarri eta ñabarduratan atentzioa jartzea: koloreen aukeraketa, formen gainjartzea, motiboen errepikapena, erabilitako teknika eta bakoitzaren atzean dagoen gogoia eta desira zein den asmatzen saiatzea. Margolan batzuetan supermerkatuaren adreiluzko eraikin biluzien argazkiak txertatu ditu artistak, baita poltsak, eskaintzen esku-



orriak edo komertzio horien iruditegiak identifikagarriak izan litezkeen beste hainbat elementu ere. Gainjartzeak ere badaude, eta koadro batzuek beste koadro txikiago batzuk dituzte bere baitan mihiztadura formal batean, betiere for-

matu angeluzuzenean. Trazuak, kolore masak, forma iradokitzaileak unibertso propio bat eraikiz doaz jatorrizko ideia hori ia-ia desagertzera eramateraino.

23 margolan daude espazioan zintzilikatuta, bata bestearengandik oso

gertu, koloredun masa bat sortzeraino. Mihiztaduraren ideiarekin jarraituz, etxeko sarreretan jartzen diren lanpas zatiekin –beltza, grisa, marroia– osatutako margolanak ikusiko ditugu. Izan ere, badago beste margolan multzo bat non bazarraren edo azokaren iruditegi hori presenteagoa egiten den. Imazek alfonbrak eta lanpasak zursareak balira bezala margotzen ditu, batzuetan mila detailez, beste batzuetan bertatik abstrakzio ariketa bat proposatuz. Koadro handi horietan, kolore arrosak eta lilak nabarmentzen dira. Azkenik, lentzeria-moda motibo duten pinturak ere badaude, handiak, koloretsuak, umoretsuak, aparteko teknikaz egindakoak.

Eskertuta atera naiz erakusketa ikustetik. Kale-kantoi isilaren bukaeran Molcris marko-dendara hurbildu naiz kuriositateak piztuta, eta polita da galeriak eta denda honek kale estuari ematen dioten bizitza. Gora begiratu eta emakume bat azpiko arropak zintzilikatzen ari da kaletxora ematen duen esekilekuan. Barruan ikusi dudana margolan bat gogorarazi dit estanpak. ●



Horrelako itzulpenik jaso nahi ez baduzu...

kontratatu Elhuyarren itzulpen-zerbitzua

Europar Batasuneko hizkuntza ofizial guztien arteko itzulpenak

itzulpenak.elhuyar.eus

elhuyar
ezagutuz aldatzea



LIBURUA

Europa amets



GURE IRATIA

MUGA GUZIEN GAINETIK

XALBAT ITZAINA
IRUDIAK: PAXKAL BOURGOIN
IKAS, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Maliko hegoaldean sortutako 14 eta 16 urte bitarteko lau gazte ditugu nobela honetako protagonistak. Beraiek egiten duten bidaia da, hain zuzen, Xalbat Itzainak kontatzen diguna. Nola ateratzen diren etxetik, batzuk gogoz, bateren bat behartuta; nola doazen Burkina Fasora, Niger zeharkatu eta Libiara iritsi; Tripolin jasan behar dituztenak eta, azkenik, itsasoaren zeharkaldi dramatikoa. Irakurleak ez du bidaiaren amaiera ezagutuko, Palermon uzten ditu egileak Jalil eta Nura, lagun afganistandar batekin, korrika doazela... manifestari batzuegandik ihesi.

Nobelak Amets Arzallus eta Ibrahim Balderen *Miñan* liburua gogorarazi digu behin baino gehiagotan; Itzainaren nobela bi gazteren lekukotasunean oi-

narrituta dago eta, Ibrahimaren kontakizunean bezala, hemen ere bidaiaren gordina eta mina presente dago.


Muga guzien gainetik erraz irakur daitekeen obra dugu. Kapitulu laburretan egituratua, elkarrizketa ugari eta deskribapen laburrez osatua. Bizia da, ekintzaz beterikoa. Suma daiteke protagonisten pentsamendua, zer bizi duten, bidaiaren pozak eta, batik bat, kezak eta penak; alde horretatik irakurleak azkar biziko ditu lau neska-mutilen gertakariak.

Hizkuntza aldetik hegoaldeko irakurleak hain ezagunak ez zaizkion hainbat hitz aurkituko ditu –eskarniatu, kalapitan, akitu, lohasma, beha eta guhaur, 25. orrian agertzen direnak, esaterako– baina horietako batzuk hiztegi laguntzarekin ageri dira orriaren oinean eta beste

batzuk testuinguruagatik uler daitezke, beraz, ez dadila hori nobela honetara hurbiltzeko arazo izan.

Liburuan, bestalde, Paxkal Bourgoinek eginiko hainbat ilustrazio ageri dira koloretan, narrazioari indarra emanez eta, hasieran batez ere, hainbat mapa ere bai, gazteek eginiko bidaiaren nondik norakoak azalduz.

Nobela interesgarria da migrazioaren mugimenduen berri izateko, gure gazteei hurbiltzeko eta gure lurretara hurbildu diren horiek ezagutzeko. Zituzten ametsen, dituzten amets gaiztoen eta, sarritan, gizarte moduan erakutsi izan diegun mespretxuaren argigarri ere bada. Balioko al du liburu honetako lekukotasunak gogoetarako eta gazte hauen onarpenerako! ●



MUSIKA

Merezitako omenaldia



ENRIQUE MORENO ESQUIBEL

Arriaga Antzokiak ekoiztutako *Luis Mariano mugarik gabe. Berriz elkartzeko abestiak eta irudiak* izeneko espektakulua. **Tenorra:**

Ismael Jordi. **Pianista eta zuzendari musikala:** Rubén Fernández Aguirre.

Egitaraua: Luis Marianoren abestiak. **Lekua:** Arriaga Antzokia. **Data:** martxoaren 20a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Jean Gabinek esan zuen bezala, publikoak artista batzuk miresten ditu, eta beste batzuk maite ditu. Luis Mariano, zalantzarik gabe, bi kategorietakoa zen. Ahots-tesitura aparta zuen abeslaria izan zen, eta ahots-tinbre berezia, ahaztezina eta oso malgua zuen. Baina, horretaz guztiaz gain, publiko fidela eta bere arteaz maitemindua eduki zuen, batez ere Frantzian –inor ez da profeta bere lurraldean, esaten den bezala–. 1970ean 55 urte besterik ez zituela hil zenetik ere publikoak leial izaten jarraitzen du, eta inoiz ez da lorarik falta Arrangoitzeko bere hilobian.

Tenore handi honen bizitzatik eta obratik ibilbide emozional bat proposatu du Calixto Bieitok artistari egindako omenaldian, Ismael Jordiren erreztaldi baten bidez eta ikusizko elementuak ere eskainiz. Luis Marianok ospetsu egin zituen abestirik ederrenak inter-

pretatu zituen tenore jereztarrak, mai-tasunez eta gustuz.

Jakina, konparazioa saihetsezina izan zen. Ismael Jordiren ahotsaren tinbrea bikaina da, emisio ezin hobea du eta arima jartzen du kantuetan, baina Luis Marianoren gozotasuna, ahoskera eta fraseaketa karamelatua ezin dira erreproduzitu. Eta, agian, ez da beharrezkoa ere. Irungo tenorearen kantatzeko era teknika jakin baten eta ahots-ezaugarri zehatz batzuen ondorio zen eta denok gordetzen dugu gure buruan; gainera, grabazio ugarien bidez goza dezakegu. Ismael Jordik bere egin zituen abestiak, goxotasun pixka bat kendu zien, baina ez zien kendu beren erakargarritasun denboragabea.

Hamabi abesti interpretatu zituen, hala nola *Maman, la plus belle du monde* hunkigarria, *C'est magnifique* famatua, *Violetas imperiales* eta *Acapulco* ederra.

Uneoro Rubén Fernández Aguirre pianistaren laguntza izan zuen, eta berea izan zen ikuskizunaren zuzendaritza musikala ere. Konponketak Carlos Ima-zek egin zituen.

Ikuskizun sinplea izan zen, bost musikaririk osatutako taldearekin eta eszena-ratze xumekoa. Elementu berezi gisa, hiru-rogeiko hamarkadako eszena batzuen bideoek lagundu zituzten abestiak, garai hartako eszena familiarrak proiektatuz. Egia esan, harreman gutxi zuten abestiekin edo artista omenduaren bizitzarekin, baina ez zuten traba handirik egiten, nahiz eta ez zuten ekarpenik egiten.

Ismael Jordik, publikoarekin xar-magarria eta atseгина izan zenak, bis batzuk egin zituen opari, beste guztia bezain ongi interpretatuak. Gaur egungo tenore handi bat, publiko gazteak ezagu-tu beharko lukeen izar handi bat gogor-tzeko. ●



Ikuskizunaren Bilboko emanaldia, Loraldia jaialdian. Argazkia: Loraldia

Argazki historiko bat

 AMETS ARANGUREN

Ez nuen uste Gasteizen aparkatzea hain zaila izanen zenik. Edo, hobe esanda, ez nekien hainbeste koloretako marrak egon zitezkeenik pintaturik errepede ertzetan. Ez, ez dut gidabaime-nik eta bai, denbora gure kontra zihoan. Azken minutuan heldu gara Principal Antzokiko atera.

Lekua hartu eta oraindik deus entzun gabe palkotik ikusten zen irudiak ez zuen indar gutxi: Ruper Ordorika eszenatokiaren erdian eta bera inguratzen Iñigo Goldarazena baxu elektrikoan, Asier Oleaga baterian, Bixente Martinez mandolinan eta gitarran eta Arkaitz Miner koroetan, biolinean, gitarran, mandolinan edo nahi duen soka. Pott Bandaren disoluzioaren urte berean bandaren partaide zen Ruper Ordorikak argitaratu zuen *Hautsi da Anphora* diskoa eta diskoaren 40. urteurrenaren aitzakiaren harira muntatu dute ikuskizuna. Diskoa ondu zuen hiriak hartuko zuen ostiral iluntze honetan emanaldia.

Aipatutako musikariez gain Pott Banda bera ere agertu da eszenatokian ia bere osotasunean, bakoitza beretik emanez: Bernardo Atxaga argi eta goxo mintzatu da hitzartze guztietan, umoretik betiere. Kontatu digu gaztetan elkartzen zirelarik hartzen zuten Arriaga *sanguitxa* nola prestatzen zuten: gurinetan bustiriko hiru ogi xerra, arrautz frijitua(k), gouda eta *beikona* edo hirugiharra. Hiru pisu. Eta kontatu digu zein tabernatan egiten zituzten munduko gin-tonic one-nak. Aresti ere heldu da antzokira haren ahotik. Mikrofonoa hartu dute gero Joxemari Iturraldearen hitz jolasak eta Manu Ertzillaren kontakizun serioak eta espektatiba askoren arrazoi ziren Joseba Sarriionandiaren xalotasunez beteriko kontakizunek. Jakin dugu zein izan zen Sarrik Ruperri kantuan entzun zion lehenengo abestia eta duela 40 urteko Bilboko erre-kako ura *Cola Cao* zela.

Susmoa nuen zerbait berezia sentitzen ari nintzela, baina ez nekien ongi

HAUTSI DA ANPHORA


NOIZ: Martxoak 25

NON: Principal Antzokia (Gasteiz)

zer. Aurreikusi nezakeen arren, emanaldiaren erdialdera arte ez naiz kontziente izan: argazki historikoa nuen begien parean. Orduan pentsatu dut nik YouTube hainbestetan ikusi ditudan Oskorrik 1987an TVEko A Media Voz programan eman zuen kontzertua edo Hertzainaken 1991ko despedida kontzertua bezainbeste ikusiko zutela hau urte batzuen buruan sarean oraindik jaio ez direnek. Pentsatu nahi dut, dena den, hamar partaide izan dituen argazki historiko hau herri honetan hamar gizonez osaturiko azken argazki historikoa izanen dela. Diskoa osorik jotzeko falta zitzaizen *Berandu dabilta* kantuarekin eman diote bukaera emanaldiari eta soinu-jole batek edertu du ez hau bakarrik, baina azken kantu hau ere: Josu Zabalak, nork bestela.

Ez dakit inoiz argazkia errepikatuko ote den ala ez, dakidan bakarra da nik *beikona* eta hori guztia duen *sanguitxa* dudala afaritarako zain. ●

Gurutzegrama




EZKER-ESKUIN:

1. Adiskide. / Apar. **2.** Landare lekadun. / **Argazkiko udalerria.** **3.** Anizkoitz. **4.** Behinola. **5.** Ebaki sakon. / Joera, atxikimendu. **6.** Jira. / Otzara baten edukia. **7.** Aurreko tokira. / Patxarana egiteko erabiltzen den fruitu. **8.** Lirain, apain. / Zerbaitenganako fede itsua duena.

GOITIK BEHERA:


1. Ibaietako lohi. / Bakarra. **2.** Kaiku, kirten. / Dakota. **3.** Nafarroako herria. **4.** Urtean behin argitaratzen den aldizkari. **5.** Landare mota. / Eritreako domeinua. **6.** Kontsumorako Prezioen Indizea. / Arras, zeharo. **7.** Abiadura gelditzeko. **8.** Ez modu batera ez bestera. **9.** Telebista. / Neska gurasoekiko. **10.** Gor. / Bare, lasai (alderantziz). **11.** Zerga. **12.** Berehala (alderantziz). **13.** Donari, qolaro. **14.** Udarak. **15.** Gutziz txikia dena.

Sudoku



Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagrammak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Eusko
Ke asko dariona
Hitz-multzto
Etsi gabe aurre egin
Itxi
Setiatze
Zintzo, prestu
Finko, osasuntsu
Gaizto
Motel
Borondatez, gogoz
Hesi
Izeba

[illegible]**EBAZPENAK**

ZAZPI BIDER PENTSATU
TA BATEN BERBA EGIN.

ATSOTZITZA

EUSKO
KETSU
TESTU
EUTSI
HETSI
SETIO
ONEST
SENDO
DONGE
GELDO
OLDEZ
LEZOI
IZEKO



ANAGRAMAK

ESKER-ESKJUKN: 1. LAGJUN, BÍTS, 2. ALZAR, KANBO,
3. MUTTIPLO, 4. BEHJALA, 5. SAKI, ZALEATSNUS, 6. BÍRA,
7. OTZARAKADA, 7. AURRERA, BASARAN, 8. TXAIRAIO,
FANATIKO
GOTTIK BEHERA: 1. LIMO, BAT, 2. ALU, SIUX, 3.
BALABARRA, 4. UTZKARAI, 5. IHI, ER, 6. KOP, 7.
GALBASTA, 8. NIOLAZ, 9. TB, ALBAR, 10. SORO, ERAN,
11. TASA, 12. AKAT, 13. SARAI, 14. UDAK, 15. NANO.

Sagrario Aleman

50 URTEKO TALAIATIK
EUSKARARI BEGIRA



EUSKARAREN ERREZETA

“Nik farmazia ikasi nuen, baina unibertsitatean hasi nintzela, euskarazko eskolak ematen hasiak ziren gazte batzuk, eta jendea behar zen. Anaia eta ahizpa ere arituak ziren lehenago. Horrelaxe sartu nintzen, behar bat zegoelako, euskaltzalea nintzelako eta euskara ikasi nahi zutenak bazirelako. Hasieratik argi izan dugu ikuspegi gramatikal bat eman ordez hitzunak atera behar genituela hemen-dik. Niretzat, bilgunea izan da Campion, jende heldu eta gazteekin kontaktuan egoteko toki bat. Beti ikusi dut Nafarroaren edo gizartearen ispilu gisa. Ni hori partaide izan naiz, eta nire ekarpena egin dut. Irakasle eta zuzendari. Kanpora begirako irudi izatea tokatu zait batez ere, baina beti taldean egin ditugu lanak. 2017ko abuztuan hartu nuen erretiroa”.

“Hizkuntza baino gauza politizatuagorik gutxi”

1971-72 ikasturtean sortu zen Iruñeko Arturo Campion euskaltegia, ordura arte han-hemenka euskara eskolak ematen ari ziren hainbat taldek bat egin zutenean. Konpainia karrikan pisu bat hartuta, egoitza finkoa zuen Euskal Herriko lehenetariko euskaltegia izan zen. 1978an lekualdatu ziren oraingo lokaletara, Comedias kalera. Bertan hartu gaitu Sagrario Alemanek (Etxaleku, 1952), 35 urtez zuzendaria izandakoak, euskaltegiaren 50. urteurrenean. Bertatik begiratu dio, 50 urtez, berreuskalduntze prozesuari.

ANDER PÉREZ JOSU SANTESTEBAN

Zuk euskara zenekarren etxetik, eta ez zutenei irakastera pasa zinen Iruñean. Gerora, Euskaltzaindiarako sarrera hitzaldian, “berdetik horira” esan zenion salto horri. Nolako jauzia izan zen?

13 urterekin etorri nintzen. Jende askorentzako arrotza zen euskara bera, ez zuten inoiz aditu. Kolegioan euskaraz egin nezan eskatzen zidaten batzuk, entzun nahi zutelako. Gogoan dut, baita ere, Udal plazako Ziga dendan bazela kartel bat, “euskaraz mintzatzen da”. Hori ikusteak etxean sentiarazten ninduen nolabait. Etortzerako, aitak esan zigun: “Norbaitek zerbait esaten badizu, zuk esan bi hizkuntza dakizkizula. Ondoan duzun horrek seguraski bakarra daki”.

Orain 50 urte, euskaltegia ireki zenutenean, zein zen ikasleen motibazioa?

Esanen nuke Nafarroan motibazioa hasiera hartan zena dela oraindik ere, neurri handi batean. Nik motibazio horri identitarioa deituko

nioke. Jendeak bere burua hemen-gotzat zuen, hemengotzat zeukaten euskara, askoren etxean egona zen, gurasoak edo aiton-amonak euskaldunak ziren. “Ni ere hemengoa naiz, nire hizkuntza da hau eta ikasi behar dut”. Gaur egun motibazio horrek segitzen du, nahiz eta inoiz ez den arrazoi bakarra izaten.

Eferbeszentzia politiko eta herrigintza pultsu handiko garaiotan sortu eta hazi da Campion. Horrek kutsatuko zuen euskaltegia bera.

Sanferminetako barrakak, Euskarenen Legearen kontrako kanpainak, Zaldiko Maldiko Elkartearen sorrera, Euskalerrria Irratia, Egunkaria, Karrikiri... Guzti horietan, eragile zuzenak beste batzuk izan arren, beti izan dira Campion eta Campiongo jendea. Helduen euskalduntze-alfabetatzean, beti militanteak izan dira irakasleak. Irakaskuntza arautua profesionalizatu da, eta, bere alde on guztiekin, militantziaren galera bat dakar horrek. Helduen euskalduntzean hori gutxiago ematen da; ez



Sagrario Aleman, Arturo Campion irudikatzen duen kilikiarekin: "Guretzat, Campion, euskara ikasi zuen heldu bat zen, euskararen alde hainbeste egin zuena. Izen egokia zen".

da garai batean adinakoa, baina esanen nuke oraindik militantziaz jokatzeko dela.

Baina bada dioenik moteltze bat antzematen zaiola berreuskalduntze prozesuari...

Administrazioak esaten du: norbana-koak egin dezala, eta botatzen digu pilota guri. Baina beldur naiz askotan euskalgintzatik ere ez ote dugun esaten: egin dezala administrazioak. Elkarrekin aritu behar dugu, baina jakinda nork zirikatzeko duen. Eta nik uste dut gu zirikatzaileak izan behar garela, besteak beste. Euskararen alorrean egin diren pauso handiak egin dira euskalgintzatik etorri delako halako indar bat. Berritoki ere hartu beharko genuke protagonismoa.

Euskaltzain izendatu zintuztenean aipatu zen herrigintza akademiara eramatera zindoazela nolabait. Beharrezkoa da hori?

Euskaltzaindia bezalako toki batean beharrezkoa da arlo guztietatik etorriko den jendea. Jende asko da hizkuntza-aren arloan oso jakintza handikoa, eta Iker Sailean, adibidez, jende hori nahitanezkoa da. Baina beste atalean, jagon-en, sustapen lana egiten da. Egin izan da lehen alfabetatze taldeak, ber-

tsolari txapelketak, Bai Euskarari kanpainak, eta segitu behar da. Eta alde horretatik komenigarria da bai, gizartearen ikuspegi orokor bat izateko.

Transmisioaren ikuspegitik, zer garrantzia du helduak euskalduntzeak?

Momentu batean indarra haurren irakaskuntzan jarri zen, eta jende askok pentsatu zuen, eta oraindik pentsatzen du, haurrak euskalduntzea aski dela. Beste askok pentsatzen dute haurrek ikasiko dutela haiek baino errazago, baina hori ere ez da egia. "Ikasiko dute haurrek eta horrekin egingen dugu aurrera". Alde horretatik, utzikeria are handiagoa da: lehen norberak bere buruari jartzen zion egitekoa, eta orain berdin jokatzeko dugu guztiok, beste baten gain utziz euskalduntze prozesua: gurasoek haurrengan, administrazioek norbanakoen- gan. Bakoitzak bere gainetik kentzen du egingizuna.

Politikagintzan ere aritua zara. Zuretzat bereizi ezinak ziren euskara eta abertzaletasuna?

Askotan esaten da hizkuntza ez dela politizatu behar, baina gauza guztiak daude politizatuta, eta hizkuntza baino

politizatuagorik gutxi. Gaur egun Nafarroan egiten den hizkuntza politika euskararen kontrakoa da. Eta gaur egun- go alderdi abertzaleek ere arlo hori utzi samar dutela iruditzen zait: askoz ere euskaldunagoak dira bere funtzionamenduan, baina beste gauza asko euskararen gainetik jartzen dira. Bestalde, gaur egun badira abertzale sentitzen ez diren euskaldun asko, eta normala da: zenbat eta jende gehiagok ikasi euskara, hor denetarik izango da. Baina abertza- le izatea euskara jakin gabe... niri oso zaila egiten zait ulertzea. Uste dut alde horretatik eskas gabiltzala kontzientzia politikoan.

Zer datorkizu burura Arturo Campion euskaltegiak 50 urte bete dituela entzuterakoan?

Bi gauza. Batetik, gauza ona, 50 urtez irauteko gauza izan garela. Bestetik, diot: 50 urte eta oraindik nola dagoen Iruñea... Akaso beste funtzio bat behar- ko luke dagoeneko euskaltegiak, baina oraindik segitu behar du hasieran zuen horrekin, eta urte luzetarako: berezi- ki hitzunik ateratzeko tokia behar du. Zoritxarrez, oraindik bizi behar du urte gehiagoz, ez da bukatu, 50 urte ez dira aski izan. ●

Korrika bai, baina

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bai, bai, denak Korrikan, baina gero lagunekin erdaraz. Hemen gaude euskararen alde, baina hitz egin dezala zure amonak kuadrillakoekin musean ari-tzeko geratzen denean. Ika, ika, ika, baina ze erraza den bi urtean behin kilometrotxo bat korri egitea, merke dago gero argazkian euskaltzale agertzea. Euskal Herrian euskaraz, baina Korrikari buruzko txioa ingelesez, *all over the world* zabaldu dadin.

Baina begira beste hori, bai, horko hori, nik ezagutzen dut, horri bost axola AEK eta letxe guztiak, hori entrenatzen ari da hurrengo asteko ultra-trailerako, ni ez nau engainatzen. Baina ze *matau* klase izan behar duzu ilunpetan, elurretan, galtza motzetan furgoiari bultzaka aritu direnak bezala ibiltzeko. Baina taberna horretakoek ere hartu dute lekukoa eta; gero barran “hay caldo” bakarrik daukate jarrita, *en castellano para que entendamos todos*.

Korrika bai, baina horien ondoan ez. Korrika bai, baina ez nahastu politika-rekin. Korrika bai, baina hasierakoa, maketakoa, *mainstream* bihurtu aurrekoa. Korrika bai, baina presoen argazki horiekin ez du ezer egingo antolakuntzak? Korrika bai, baina ea aurtengoan gure alkatea ez duten kurba batean botata uzten aurrekoan bezala. Korrika bai, baina lekukoa daramaten gehienak gizonak. Korrika bai, baina sozialismoa da hemen inporta duena. Korrika bai, baina independentziarik gabe euskara ez da salbatuko. Korrika bai, baina ea noiz jartzen duten pedalka funtzionatzen duen furgoneta bat gasolina erretzen ibili ordez, zeren klima aldaketak Euskal Herria basamortu bihurtzen duenean ez du gogorik emango ezta sanskrito hitz egiteko ere.

Baina beste horiek ez al ziren aritu hasieran esaten Korrikaren asunto ho-



nen atzean ETA zegoela? Baina mese-dez, ertzainek ere kilometro bat hartu dute-eta auzoan, total, gero berdin-berdin jarriko dizute salaketa beraiei euskaraz egitea okurritzen bazaizu. Baina zer diozue aurtengo abestiaz, eske ez da bakar bat ere salbatzen, e?

Bai, bai, denak Korrikan, baina ez zarete hainbeste emozionatzen EGA penkatzen duzuenean. Baina euskaltegian dabilen batekin ere ez zarete-eta kapaz zuen euskalki itxi hori pixka bat lasaitzeko. Baina ikastolako batu hori egiten ez duen edozein “pixka bat kaxeroa” dela esaten duzue eta. Baina beltz bat parean tokatzen zaizuenean automatikoki erdaraz egiten diozue eta. Baina ze pereza. Baina zenbat hipokrisia.

Bai, bai, denak Korrikan, baina nire herritik goizeko ordubietan pasako da aurtun, aber zein atera daitekeen

ordu horretan eta hurrengo egunean lanera joan. Baina beti hiriburuetan bukatu beharra ere. Baina kilometro bat eskatu eta Portomokoko ixkinan eman ziguten-eta; mundu guztia begira dagoen erdiguneko kilometroa entxufatuentzat beti.

Bai, bai, denak Korrikan, baina hauetako bakar batek ere ez du gero liburu bat euskaraz irakurtzen –eta erdaraz irakurriko balute, gaitzerdi–.

Bai, bai, denak Korrikan, baina azkenean ni ere bai. Baina konplikatu da esplikatzea, liatu ninduten eta... Baina ez esan inori. Baina, egia esan, ondo pasatu nuen. Baina pixka bat emozionatu ere bai. Baina zin dagit hau pasatzen denean berriz ere beti bezain petrala izango naizela, hainbeste urte hiperkritiko fama lortzeko aitzur eta pala ibili ondoren ez da komeni bihozñoa gehiegi erakustea. ●



17€

22.ek
22.korrika

**Korrika amaieran
apirilaren 10ean
Donostiako Elkano kalean
egongo gara. Gerturatu
zaitez ARGIAren mahaira.**

Bidalketa gastuak 4€ eta 40€-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.
Hemendik aurrera erosketak BIZUM bidez ere ordaindu daitezke.



%100
kotoi
organikoa

19,5€

+ 4€
bidalketa
gastuak

azoka.argia.eus 943 37 15 45



BABESTU INDEPEN DENTZIA

Babesa duenak galdera berriak
sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar.
Eragin dezake txikitik.

**Kazetaritza independentea
izan dadin, jendearen
babesa beharrezkoa da.**

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45